

PIERRE RABHI

Laborantza biologikoaren aitzindaria

«Bizitzaren potentziala izugarria da,
gizateriaren tontakeria bezainbestekoa»



Guifi.net

Interneten
alternatiba
izan nahi duen
uhin sarea

Hasier Arraiz

«Ezker
abertzalearen
aldaketa ez da
neurrian egina
oraindik»

Maskulinitatea

Gizon taldeen
diskurtsoa aztertu
du Jokin Azpiazu
Carballok

Anaje Narbaiza

«Elay enpresan
gauden 200
langileetatik
lau dira euskara
ulertzen ez
dutenak»

Net Hurbil

Mamografiaren
eraginkortasuna
zalantzan

Larrun

Independentzia,
aukera ala ametsa?

Kontzertua

apirilak **13**
20:00 2013

Kursaal
Donostia

ibipareo

Laguntzaileak:

argia

an@



Salmenta: Victoria Eugenia leihatila
www.kutxasarrerak.net



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko martxoaren 31, 2.363. zenbakia

ASTEKO GAIA

GUIFI.NET Autogestionatutako telekomunikazio sarea.
JON TORNER ZABALA / 4

PERTSONAIA

PIERRE RABHI: «Gaur egun, 'on egin' ez, 'zorte on' esan behar da».
SUSTRAI COLINA / 10

GAIAK

JOKIN AZPIAZU CARBALLO Maskulinitatea: eraldatu, irauli edo baztertu. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 15

ETORKINAK Krisiak areagotutako topikoak desegiten.
MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 18

IRITZIAREN LEIHOA

HUGO CHAVEZEN HERIOTZA ETA VENEZUELAKO ETORKIZUNA
GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 20

ABERRIA, IZATEKOTAN MIKEL IRIZAR / 22

INOIZ EZ BEZALAKO AUKERA KIKE DIEZ DE ULTZURRUN / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21 **TXANDAN** AMETS
ARZALLUS / 22 **BERTSO BERRIAK** UXUE ALBERDI / 23

ERDIKO KAIERA

'ERBESTEA ABERRI' IKUSKARIA Migrazioa, dantzaren bidez kontatua. AMAIA UGALDE BEGOÑA / 24

XABI SOLANO, ESNE BELTZA: «Luzaroan rocka besterik ez da izan Euskal Herrian». IKER BARANDIARAN / 26

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 29

LITERATURA IGOR ESTANKONA, GORKA BEREZIARTUA / 30

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 31

ALEA Txapelketa baten geografia. PATXI LARRION / 32

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

HASIER ARRAIZ: «EAJ oso urruti ikusten dugu guregandik, oso urruti». MIKEL ASURMENDI / 37

ARO BERRIA KURDISTANEN Armak isiltzea erabaki du PKK-k.
LANDER ARBELAITZ MITXELENA / 41

ANAJE NARBAIZA: «Langilea gaztelaniaz badator, gero ezin dira 200 lankideren hizkuntza ohiturak aldatu».
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 42

IKERKETA ETA GARAPENA Euskal Herria Europako trenaren atzealdeko bagoietan. URKO APAOLAZA AVILA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Mamografiak ona dute asmoa, baina emaitza nolakoa?
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

OHARRA

Datorren astean ez da ARGIA kaleratuko. Apirilaren 14an itzuliko gara.

Autogestionatutako telekomunikazio sarea

Landa eremuak bazterrean uzten ez dituen telekomunikazio sare libre eta irekia da Guifi.net. Internet merkeago eskaintzetik harago, sarearen kontrola erabiltzaileen esku geratzen da. Kataluniako eredua ardatz, Euskal Herrian ere hasia du bere bidea.

| JON TORNER ZABALA |

HILEAN 50 EURO ordaintzen dituzu etxean Internet edukitzeagatik. Hamabi hilabeterako kontratua sinatzera behartu zaituzte, gainera. 100 megako abiadura nabigatu nahi baduzu, ez daukazu beste aukerarik. Sarea kontrolatzen duten telekomunikazio enpresen arauetara egokitu gara, zerbitzu hoberik beste inork eskainiko ez digula sinetsita. Gainera, erdigunetik urrun samar dauden auzo eta baserrietan bizi direnak joko-eremutik kanpo daude. Garestiegia omen da banda zabaleko konexioa haraino jartzea.

Ekintzaile batzuk, ordea, menpekotasun horri ihes egiteko bideak urratzen ari dira, kultura eta software askea iparratzen, telekomunikazio sarea erabiltzaileen kontrolpean egon dadin, etekin ekonomikoa lortzea helburu duten telefono operadoreen eta Google bezalako hamaika tentakuludun olagarroen menpe utzi beharrean. Euskal Herrian Guifi.net proiektuko kideak dira aitzindari.

Sare libre, ireki eta neutrala da Guifi.net. Edonor konekta daiteke, konexio-abiadura mugarik eta hainbat hilabeterako lotzen gaituzten pertenezia kontraturik gabe. Modu horizontalean funtzionatzen duenez, erabiltzaile orok ikusi, kudeatu eta garatu dezake sarearen egitura.

Internet doan edo askoz ere merkeago eskaintzen du Guifi.net-ek, baina lehentasuna ez du horrek, amaraun ahalik eta handiena osatzek baizik, herriguneak eta landa eremuak konektatu eta baliabide ugari eskainiko dituen: IP telefonia-sarea (erabiltzaileen artean doan hitz egiteko), streaming bidezko irrati-telebista

emisioak, txat eta e-posta zerbitzuak, fitxategiak partekatzeko bitartekoak eta abar.

Katalunian hasi zen gorpuzten proiektua eta han du zabalpen handiena: 50.000 erabiltzaile inguruk egin du bat egitasmoarekin, etxez etxe, auzoz auzo, eskualdez eskualde, eta haien nodo edo antenak apurka-apurka herrialde osoa lotzen ari dira uhin bidezko konexioekin.

Helburua hori da. Lekuan lekuko komunitateak konektatzea lehenengo, eta zonalde geroz eta handiagoak hartzea pixkanaka. Hego Euskal Herrian ere pausoak ematen hasia da Guifi.net, Gipuzkoan bereziki, Gipuzkoa Share elkarrekin bultzatuta. Koordinatzaile lanetan diharduen Asier Garaialdek eman dizkigu proiektuaren inguruko oinarriak azalpenak.

Sare libre, ireki, neutral eta horizontala da. Edonor konekta daiteke, konexio-abiadura mugarik eta hainbat hilabeterako lotzen gaituzten pertenezia kontraturik gabe

Kostuak eta soluzioak partekatu

Guifi.net-era konektatzeko behar dira super-nodoa (uhin bidezko errepikagailua), erabiltzaileek teiltuan paratuko duten nodoa (antena), eta horri kable bidez lotuko zaizkion routerra (jada etxean duguna konfiguratu daiteke) eta ordenagailua. Erabiltzaileak dira gailu horiek erosi, instalatu eta mantentzeko arduradunak; Guifi.net fundazioak laguntza eskaintzen die. Inork sarea sabotatzen badu kalteak azkar konponduko dira, antolaketa hain hierarkikoa ez denez, erraza delako alternatibak aurkitzea. Sare telematikoak konektatzen ditu Guifi.net-ek. Ez, ordea, gailu mugikorak. “Operadoreek erabiltzen dituzten frekuentziak pribatiboak dira”, azaldu digu Garaialdek: “Negozio horrek diru asko mugi-



Nodoetako bat jartzen, Andoaingo eraikin batean. Gipuzkoan dago zabalduen Guifi.net sarea.

tzen du eta oso kontrolaturik dute. Baina Internet liberatu behar izan zuten moduan, mugikorrekin ere gauza bera gertatuko da”.

Instalazioak partekatu eta mantenu kostuak banatu ahal izateko, onena da eraikin bereko bizilagunak adostasunera heldu eta antena bakarrarekin guztien beharrak asetzeari. Adibide batekin azaldu digu Guifi.net proiektua garatzen ari den Barakaldoko Gaueko kooperatibako kide Dabid Martinezek: “Pentsa zuen atarian hamar bizilagun zaretela, eta 100 megako Euskaltel konexioa erosi duzuela 100 eurotan. Bada, kontratua guztien artean zatikatuz gero, hilean 10 euro ordainduta bakoitzak 10 mega izango lituzke. Nabigatzeko nahikoa eta sobera da. Euskalteleko estrategia eraginkorra erabili du: ‘150 mega behar dituzu’, esaten digu. Baina nork behar du tamainako konexiorik? Unibertsoa deskargatzeko bai, baina mezu elektronikoak irakurri, pelikula bat jaitsi edota bideo bat ikusteko ez da beharrezkoa! Ez dago zertan 60 euro ordaindu hilean, ikaragarria da”.

Garaialdek argi utzi digu Guifi.net ez dela Interneten alternatiba: “Internet mundu osoan zabaldurik dago. Ezinezkoa da tamai-

nako sarea sortzea. Baina zonalde batean, izan auzo, herri, eskualde edo Euskal Herri osoan, Internet erabili gabe komunikatzea lor dezakegu”. Martinezen hitzetan, Internet zerbitzu baten moduan eskaintzen dute: “Niretzako albo-kaltea da. Gauzarik inportanteena da Bermeotik Irunera mezu elektronikoa bidali ahal izatea Internetetik pasa gabe, edo bizilagunen artean film bat elkarbanatzea P2P sareak erabili gabe”. Google Reader kenduko dutela entzun eta jendea asaldatu egin dela gaineratu du: “Gisa horretako erremintak doakoak dira produktua gu geu garelako. Eredutxoak aurkitu behar ditugu, Reader ixteak bost axola eman beharko liguke. Etorkizunean irabaziak emateari uzten badio, Gmail zerbitzua ere kendu egingo dute. Gure bizitza osoa dugu han. Guifi.net jarrita, e-posta geuk kudeatuko genuke”.

Landa gunetara heltzea xede

Euskal Herri osoaz mintzo direnean, bereziki azpimarratzen dute landa eremuak konektatzeko beharra. “Baserri-auzo batean Internet jartzeko eskatzen baduzu, operadore komertzialek ezetz erantzungo dizute, kostua han-



MARSUPI.ORG

Nafarroako Txulapain bailaran, Beorburu herrian, jarritako nodoetako bat. Eskuineko argazkian, Asier Garaialde Guifi.net-eko kidea.

diegia litzatekeela”, kexu da Martinez. “Azpiegitura jartzea, baina, ez da haiek dioten bezain garestia, antena batek ez ditu 10.000 euro balio”.

Gipuzkoako Tolosaldean, Tolomendi Landa Garapen Elkartea ari da akuilu lana egiten: “Operadore handiek ez dute inolako interesik haien zerbitzuak herri txikietara eramateko; uko egiten diote azpiegitura jartzeari, etekin ekonomiko ahalik eta handiena bilatzen dutelako”, azaldu digute Iker Karrera Tolomendiko gerenteak eta Joxi Balerdi IKT teknikariak. “Zonalde batzuetan Internet zerbitzu egokia lortzea ezinezkoa da eta Guifi.net-ekin hutsuneok bete nahi ditugu. Behin azpiegitura ezarrita, mantenu gastuak oso txikiak dira”.

Erretereriako Gaztaño auzoan, esaterako, erabiltzaileek 5 euro inguru ordaintzen dituzte hilean. Azpiegituragatik 150 euro ordaindu zituen eraikin bereko bizilagun bakoitzak. 50 megako Euskaltelen ADSL linea kontratatu zuten, eta 40 erabiltzaileetako bakarrak ere ez du arazorik izan. Asanbladan hala erabakita, artxiboak deskargatzeko P2P zerbitzuak, eMule eta gisakoak, blokeatu dituzte, eta materiala deskargatu nahi duenak apur bat gehiago ordaindu behar du. “Helburua da diru-iturri mugatuak dituztenek ere e-posta kontsultatu edota prentsa irakurtzeko aukera izatea”, diote egitasmoaren sustatzaileek.

Bestalde, Martinezen esanetan, “Ortueillako Guifi.net saretxoarekin bat egin duten erabiltzaileek fitxategi-zerbitzaria dute, haien artean filmak, kantak edota dokumentuak partekatu ahal izateko. Hurrengo fasean herriko gizarte eragileak jarri nahi ditugu

Ipar Euskal Herria

Euskal Herriko Guifi.net sareak lurralde osoa hartzea du helburu, eta sustatzaileek diote Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoara iristen saiatuko direla. Tentuz ari dira, ordea, telekomunikazio legediak desberdinak baitira muga administratiboaren bi aldeetan. Nondik hasi jakiteko Tolosako (Okzitania) Tetaneutral proiektuko kideekin jarri dira harremanetan.



DANI BLANCO

harremanetan, intranet antzeko bat izan dezaten haien artean informazioa trukatzeko, haiek kontrolatutako sarearen bidez”.

Nafarroako Txulapain bailarako hamahiru herri lotu dituen sarea da beste adibide bat. Edo dozena bat lagun bizi den Arabako Barron herriko kasua. “Telefono mugikorretik hitz egiteko kalera irten behar dugu, baina Guifi.net eta Internet ditugu etxean”, kontatu dute egitasmoaren webgunean.

“Gure asmoa zen proiektua %100 diruz lagundurik izatea, eta oraingoz %70 behintzat lortu dugu Gipuzkoako Diputaziotik”, diote Tolomendiko kideek. “Herri bakoitzeko hiru antena izanik, 6.000 bat euroko inbertsioaz hitz egiten ari gara”. Martinezen hitzetan, oso garrantzitsua da administrazio publikoek software librearen inguruko hausnarketa barnerratztea: “Teknologia eta ezagutza ditugu guk, baina dirurik ez”.

Uhinak kezka iturri

Erabiltzaileak gehien kezkatzen dituen Guifi.net sareak igortzen duen erradiazio elektromagnetikoa da. “Logikoa da uhinen inguruko kezka agertzea, baina asaldatu aurretik datuak ezagutu behar dira”, dio Garaialdek. Azaldu digu haien helburua sare bat osatzea dela, izan haririk gabeko uhinen bidez zein zuntz optikoarekin. “Uhinekin ari gara hori delako konexio modurik merke eta errazena. Proiektua gizarteratu nahi badugu, kostuak ahalik eta baxuena izan behar du. Oso kontuan daukagun gaia da, dena den, eta egunen batean zuntz optikoarekin lan egin dezakegula ikusten badugu, bada... Katalunian, esaterako, hasiak dira zuntza erabiltzen,

baina erabiltzaile askoz ere gehiago dira, oinarritzko sarea garatua dute jada”.

“Desinformazioari aurre egin” eta herritarren zalantzak argitzeko, wifi antenek gudan izan dezaketen eraginari buruzko datuak pilatu dituzte proiektuaren sustatzaileek Guifi.net webguneko Osasuna atalean. “Gaur gaurkoz, eremu elektromagnetikoen minbizia eragiten dutenik ez dago zientifikoki frogatuta”, irakurri dugu sarrera orrian.

“Frogatu beharrekoa, baina, ez da uhinak kaltegarriak direla, benetan kalterik egiten ez dutela baizik”, idatzi du Garikoitz Perurenak *Ardura zaitzez!* blogean. “Eta oraindik ezin dezakegu esan telefono mugikorrek edota wifi azpiegiturek erabiltzen dituzten eremu elektromagnetikoen gudan eraginik ez dutenik”.

Uhinaren balizko kalteei dagokienez zientzialariak ez dira ados, eta ez dago horiek diagnostikatzeko protokolo medikurik. Dena den, “zuhurtziaz” jokatzeko eskatu du Perurenak, Europar Batasunak dioenaren bidetik: “Zerbaitekalterik eragingo ez duela argi ez badago, Zuhurtziaren Printzipioa aplikatu behar da, emisio-mailari dagozkion araudiak zorrotzuz, balizko kalte horiek gerta ez daitezzen”. Gasolioaren edota berunaren kasuan posible da eragin kaltegarria dutela frogatzea, baina erradiazio elektromagnetikoen inguruko ikerketak garestiak dira, eta enpresa askori ez zaie datuak azaleratzea interesatzen. Epe motzerako efektuei buruzko ikerketak egin dira eta emaitzek ez dute, oro har, ondorio kezkagarriak erakusten. Hainbat adituk dioenez, ordea, neurketak epe luzean egin beharko lirateke, kalteak denboran ager daitezkeelako.

Uhinaren kontrakoek argumentu gisa darabilten BioInitiative txostenaz hitz egin digu Garaialdek: “Legez, Europa ia osoan 60 volta metroko intentsitatearekin igorri dezakete antenek. Nafarroan, Errioxan eta Katalunian 41ekoa da muga hori, baina aipatu txostenak dio gehieneko eremu-maila 0,6 voltakoa

«Ez gara operadore komertziala»

Guifi.net operadore gisa eratua dagoen fundazioa da. Babes legala ematen dio horrek. Euskaltelek edo beste edozein enpresak dituen eskubide berberak ditu. “Telefonia operadoreek indar handia dute, eta Espainiako telekomunikazio legeak baimena ematen die antenak nahi dituzten lekuan paratzeko”, azaldu digu Garaialdek. “Guri ere bai, baina kalterik txikiena egingo duten lekuan jartzen ditugu”. Beste operadoreen antenak baliatzen ditu Guifi.net-ek. Europako legediak dio azpiegituren erabilera arrazionala egin behar dela, operadore desberdinen dorreak ezin daitezkeela elkarren gainean egon, garai batean bezala. Konpainia batek errepikagailua jarritz gero, gainerakoek hura erabiltzeko aukera izan beharko lukete. “Argi dugu, dena den, enpresa horiek ez direla gure lehiakideak”, dio Martinezek. “Bezeroak beste batzuk dira, izan norbanako, enpresa, elkarte edo administrazio publikoak. Operadoreek Internet eskaintzen dute, eta guk beste era bateko zerbitzuak”.



DABID MARTINEZ

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com


INAKIBEREZIARTUA

Enbalaieak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean



Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com



Iberiar penintsulako nodo ia guztiak Herrialde Katalanetan daude. Sarea zeinen zabaldurik dagoen ikus daiteke irudian.

izan beharko litzatekeela. 60 gehiegi dira eta 0,6 gutxiegi. Ezingo genuke telefono mugikorrik izan, gure uhinak ez ezik, ingurukoena ere jasoko genituzkeelako. Txostenaren arabera ez dago ziurtatzerik uhinak kaltegarriak direnik. Hala ere, erradiazioen intentsitatea murrizteko gomendatu dute ikerketa burutu duten zientzialariek, badaezpadako neurri gisa”.

Tolomendi elkarteko kideek gaineratu dute Guifi.net-ek igortzen dituen uhinak baimendutako intentsitate mailaren azpitik daudela: “Guztiok ditugu mugikorrak soinean, eta haiek emititzen dituzten uhinak askoz ere indartsuagoak direla diote adituek, baita etxeetako hari gabeko telefonoen, ohe ondolan umeei jartzen dizkiegun interfonoen eta abarren uhinak ere”.

“Gu ez gaude uhinen alde”, nabarmendu du Garaialdek. “Gure asmoa da administra-

zioei eskatzea baimendutako erradiazio mailaren muga jaitsi dezatela, baina operadoreek presioa egingo dute hala gerta ez dadin, inbertsio handiak egin beharko lituzketelako, errepikagailu gehiago jarrita esaterako, intentsitate gutxiagorekin seinalearen hedadura mantendu ahal izateko”.

Uhinaren gaineko “kezka logikoak” bazterrean utzi gabe, orain arteko esperientziek demostratu dute Interneten alternatiba baino gehiago dela Guifi.net. Sare autonomo ahalik eta handiena osatze bidean urrats txiki baina garrantzitsuak ematen ari den proiektua da, operadoreek jarritako arauen inguruan hausnartzera bultzatu beharko ligukeena. ■

argia.com Guifi.net-en printzipioei, nodoen instalakuntzari eta eremu elektromagnetikoari buruzko azalpen eta datuak, besteren artean.






Frogatu Eureka!-n

Simulagailuak

Dibertsioa ziurtatuta duzu!

1 Formularekin.
Max Flight hegazkin simulagailuarekin
Orion izarretako ontzi interaktiboarekin
Errusiar mendiko simulagailuarekin



GPS: 43° 17' 30,55'' N -1° 59' 4,59'' W / www.eurekamuseoa.es (Donostia) tel. 943 012 478



Bixente ARGIA rentzako



1978. urtean

Bixente Ameztoyk

Zeruko Argiarako egindako
36 azal.

Bilduma honek

Joseba Sarrionandiaren
hitzaurrea darama.

- 36 lamina
- Karpeta
- 210x280mm.



· Prezioa: 20€

· Harpideentzako: 15€



argia

EGIN EZAZU ZURE ESKAERA: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com

«Gaur egun, ‘on egin’ ez, ‘zorte on’ esan behar da»

“Xorieri mintzo zen, mintzo zen haizeari...”

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

1968a baino lehen hasi zenuen zure iraultza Parisen.

1950eko hamarkada amaieran hartu nuen lur Parisen, Algeriako gerra giroan. Bizirauteko lan bat kausitu behar eta Someca enpresan eskaini zidaten postua, sistemarentzat baliozkoa izateko gaitasunik ez nuen arren. Filosofoekin asko ibilia nintzen ordurako, baina hori ez zitzaion piperrik ardura nire nagusiari. Garai hartan, langileriaren mikrokosmosa antropologiatik aztertzen nuen etengabe: etxetik lanera metro eta autobusean, lan-eguna, lanetik etxera metro eta autobusean, asteburua arnasa hartzeko, eta berriz haste... Gainera, enpresaren goialdean bulegoak zeuden enkargatu zein nagusiekin, eta behealdean ni bezalako langileak. Lan mundua arras piramidala da, desberdintasun sozialak azpimarratzen dituen graduazio sistema oso bat dago bakoitzaren gaitasunari lotua. Hierarkizazio horrek eredu osoa gizakiaren selektibitatearen baitan egituratuta zegoela ulertarazi zidan, eta hautaketa ez zela gizakiaren barne baloreen arabera, bakoitzak sistemari eskaintzen ahal zionaren neurrikoa baizik. Hori gutxi ez, eta preso nintzen, gatibu. Sistema horretan gehiegi engaiatzea soldatapeko esklabutzan parte hartzea zen. Soldata ematen zidaten, libre nintzela esan, baina funtsean ez zen egia. Filosofikoki eta humanoki ezin nuen halako existentziara makurtu.

Hiritik landa eremura aldatzea erabaki zenuen, jende samaldak alderantzizko bidaia egiten zuenean.

1960-1961ean iritsi ginen Ardèche-ra laborantzan plantatzeko asmoz, baina nekazaritzari buruzko ideia zipitzik gabe. Bertako eskola batean teoria ikasi, inguruko baserrie-

tan morroi aritu, eta harrituta geratu nintzen zenbat produktu kimiko erabiltzen zen ikusita. Fite ohartu nintzen bateraezintasun itzela zegoela bizitza eta bizi ahal izateko eskutan geneuzkan pozoien artean. Jaten eman behar zigun lurra erasaten ari ginen, ingurumena kutsatzen, edaten genuen ura pozoituz gure biziraupenerako ezinbestekoa mailatzen. Parisen soldatatxo baten truke bizitza osoa alienatzeari uko egin ostean uko egin nion sistema horri ere, eta laborantza biologikoari heldu. Horretarako, lurra eta eremu bat behar nituen alta, eta garai hartan ez neukan txakur txikirik. “Zer arraio zabiltzate hemen? Hemengoak egin du! Itzuli hirira!” harritzen zitzaizkigun bizilagunak, eta Crédit Agricole-er maileru eske joandakoan “ez diezuegu suizidatzen lagundu nahi” eman ziguten arropostu. Orain gauden paradisu zati hau deskubritu, txunditu, eta nolabait aurrera egitea lortu genuen, ordea. Hamahiru urtez egon gara argindarrik gabe, zazpi urtez oso ur gutxirekin, lurra harriz beterik zegoen, orain-tsu arte hemendik herrirako bidea ez zegoen

NORTASUN AGIRIA

Pierre Rabhi, Kenadsa-n (Aljeria) sortua 1938an. Laborari eta filosofo hau laborantza biologikoaren aitzindarietako bat da eta lur bizi batera itzuliz giza-sareak bultzatzen dituen mugimenduko ideologo nagusia. Altermundialismoaren izen garrantzitsu honek NBERentzat misioak egiten ditu munduan borondatezko xumetasuna eta desazkundea aldarrikatuz. Liburu anitzengile, dokumental askoren protagonista, Frantziako lehendakartzara aurkeztu zen 2002an, eta bere izena daraman fundazioa sortu zuen 2010ean.





asfaltatuta eta euri-egunetan ezin zen erabili... Baina guk ez genuen laborantza egiteko soilik instalatu nahi, naturaz profitatu nahi genuen. Hemen paisaiari so hasi eta naturak gaina hartzen dizu, sentiberatasuna arnasten da, zoragarria da. Gauden tokitik hamazazpi kanpandorre ikusten dira, isiltasuna itzela da, airea puru-purua... Zergatik ez dira balore horiek kontutan hartzen gaurko jendartean?

Zergatik?

Edertasuna ez zaigulako piperrik axola! Guztiz zatarrak diren etxeak eraikitzen ditugu, paisaiak desitxuratzen, arimarik gabeko gauzak gurtzen... Egungo etxeek ez daukate arimarik, bizi-kutxak dira. Gu naturaren arimaren bila

genbiltzan. Gure seme-alabei ez zaie ezinbesteko deus falta izan, baina xumetasunaren aukera egin genuen. Ahuntzak genituen gasna egiteko, arbolak landatu nituen, baratzea landu, euri-ura berrerabiltzeko sistema bat fabrikatu... Aldi berean, abentura fisiko, estetiko eta espirituala izan da gurea. Kontua ez zen etxalde bat atzeman, lan egin eta sosa irabaztea, bizitzaren lege eta indarrengan berrintegratzea baizik. Izan ere, laborantza biologiko eta biodinamikoak bizitzara birkonektatzen gaituzte. Ez dut konprenitzen jendeak nola onartzen duen hiri handietako konfinamendu urbanoa. Naturarengandik geroz eta urrutia go gaude. Hiritarrek ez dakite deus naturaz. Bakantzetan naturara doaz haurrak jolas-ordura ateratzen diren gisan. Gehienentzat natura ez da bizitza zor diogun leku bizi bat, eguneroko jana ematen duena, giza-harremak bultzatzen dituen. Ez, neguan eskiatzeko eta udan eguzkia hartzeko gunea da.

Halaxe gabilta gero, zer jaten dugun ez dakigula. Sistemak gizakia alienatu du. Kapitalismo internazionalak gizateria erabat bahituta dauka. Janaria ekoizteko landa-eremuak akuitlatzea baino, jendeak nahiago du jakiak hara eta hona bidaiaraztea. Karroa bultzatzen duen jende masan inork ez daki nondik datorren ogia, nondik jantziak. Dena da anonimoa, eta azkenerako, sistemak emango dio jaten, sistemak jantziko du... Sistemak gizakia bahitzen du. Filosofikoki betitik errefusatu dut hori. Autonomia eraiki behar dugu, independentzia, ezin gara sistema baten menpe bizi, zeresanik ez sistema horrek etekina baizik ez badu helburu. Distribuzio handiari ez zaio baso honen balioa interesatzen, bere etekina baizik. Hala, dirua duenak dirua kolokatzen du, mozkinak biderkatzen dira, eta jende bat lo eginez aberasten da! Horrek pertsonaren benetako lana bigarren mailako bihurtzen du, eta horri ekonomia deitzen zaio, baina funtsean ekonomia naturak irakatsi diguna da: deus ez da sortzen, deus ez da galtzen, dena transformatzen da. Alabaina, gure planeta desertu zabaleko oasi edertzat izan beharrean, azken arraineraino, azken zuhaitzeraino, ustiatu beharreko baliabide putzutzat daukagu. Pentsa, diruaren aitzakian gizateriari ondasun kolektiboa legaliki kentzen dion kasta bat sortu dugu! Nik hori ezin dut onartu.

Alienazio horretan, nola sinetsi dugu kontsumoan datzala zoriona?

Zoriona ez da erosten. Adiskide enpresari askok esaten didate “nire enpresak ongi doaz, baina ni ez”. Saiatu zaitezke zorion-eza auto garestia eta itsasertzeko txaletak erosiz konpentsatzen, baina zorionsu ez dena nonahi

izango da malerus. Libertimenduak libertimendu, gizateria modernoa ez da zoriontsua. Ikusi besterik ez dago antsiolitiko kontsumoa, jendeak bizi duen drama salatzen du. Kontrara, Afrikara noanean jende zoriontsua ikusten dut: ez dakite bihar ogirik ukanen duten baina irribarre egiten dute. Nola azaldu oparotasunean bizi diren populuak zoriontsu ez izatea eta xumetasunean bizi direnak bai? Erantzunak gizakiarekin lotura zuzena du. Denok dakigu hiltzera kondenatuta gaudela, baina heriotzaren beldur horrek gure bizimodua dugu xede. Dirua pilatzeak edo bortitza izaneko bestea menpean hartzeak ziurtasuna ekarriko digutelakoan gaude, baina ez da hala. Hiltzeko beldur garelako dauzkagu hainbeste arma, bakoitzak egia berea dela dioten hainbeste erlijio, eta gatazkatik gatazkarako eskizofrenia tragiko batetik ezin askaturik gabilta.

Horregatik da hazkundera arazoa eta ez soluzioa?

Hazkunde ekonomikoak beti gehiago behar izatera darama. Gauzak zer diren, Mendebaldeak, Europak, ideologia bat sortu du eta bera izan da pentsamolde horren lehen biktima. Behiala, ez ziren denetan berdin beztitzten, etxeen arkitekturak desberdinak ziren, bakoiki-

Politika

“Ez dut politikan sinesten, ez egun egiten den moduan behintzat. Ez dator errealitatearekin bat. Horrexegatik nabil etengabe kanpainan. Politikarena ere baden diskurtso arrazionala erabili behar dugu sistema biluztu, desegituratu eta politikaren aurka bihurtzeko”.

tzak zituen bere usadioak, bakoitzak bere hizkuntza... Aniztasun itzela zegoen Europan, baina egun, Europa estandar bat daukagu planeta osora esportatzen ari den jendarte eredu asegaitez eta bulimiko batekin. Alabaina, non ditugu baliabideak? Mundu guztiak europar arrunt batek adina kontsumituko balu planetak ezingo luke erantzun. Zibilizazio xahutzailer baten parte gara, ez dakigu behar-izan sinpleak asea askiesten. Gizateriarentzat ezinbestekoa bakoitzak bere gosea berdintzeko lain izatea da, teilatu bat ukaitea, gaixotuz gero sendatzeko aukera... Baina kontuak ateratzen hasi eta lekutan gaude! Hori da hazkunderaren baitan dagoena. Horregatik, hazkunde ekonomikoa arazo bat da niretzat. Ez bagaude sekula satisfos, nola egongo da zoriona? Eten-gabe ari dira gure asegaiztasuna akuilatzen, eta horixe bera bihurtu dute pseudo-ekonomia honen motor. Euren behar-izanei inolako mugarik jartzen ez dieten norbanakoek akuilatzen dute sistema. Hori hala, jendea gosez hiltzen denez ezinbestekoa ez dago konponduta, baina bitartean gainkontsumoak ez dauka mugarik. Gure behar-izanak determinatuta daude, baina gure baitan indar sinboliko handia duenarekiko apetituak ez du limiterik. Horrek ez du zentzurik. Xumetasun zoriontsua behar dugu. Sinpletasunean baino zorion

EGIZU HARPIDETZA
EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZELO ARTERA
HERNAN VPM



handiagoa ez dago inon. Kontentatu gaitezen daukagunarekin, izan gaitezen zoriontsu daukagunarekin. Zergatik egin hainbeste lan? Behar ez ditugunak erosi ahal izateko? Zoritarrez, ordean, gizakiak fantasia asko txertatu ditu berez aski sinplea den errealtatean.

Gure errealtatea elikagai eskasiaren atarian egotea dela diozu zuk.

Gizateriari biziraupena bermatu dioten parametroak aztertzen ditudanean, dena gainbehera doala ohartzen naiz. Laboraria txikitu dugu nekazal ustiatzaileen eta lurraren industriaren mesedetan. Elikatzeko behararekin zerikusia duen oro bereganatu eta suntsitzen ari da sistema. Lehen oilaskoak baserrian hazten genituen, orain fabriketan! Gauza bera txerriekin. Gero harritzen gara idikiaren partez zaldikia sartzen digutelako. Nik ez dut konprenitzen nola uzten dugun hori fabriken esku. Hiri ondoko landa-guneetan aski jende legoke hiriek behar dutena ekoizteko, baina horretarako politika zehatzak behar dira. Aitzitik ez, nahiago dugu etxetik 100 metrora egin dezakeguna, etxetik milaka kilometrora bila joan. Erabat absurdua da, eta gutxi balitz, gizaki eta ingurumenarentzat toxikoa. Nola nahi duzu gu osasuntsu egotea etengabe lurak hiltzen, ura kutsatzen, eta airea kutsatzen ari bagara? Gaur egun, “on egin!” ez, “zorte on!” esan behar da! Izugarria da, erabateko ilunaldi estrategikoan gaude. Delibero egokiak hartzen ez dituzten politikari ezjakinak eta gizateria manipulatu daukagu. Hala, elikagai eskasia noiznahi etor liteke, ez dagoelako bere autonomia alimentarioa bermatuta daukan populurik. Esaterako, Aljerian, nire jatorrizko herrian, seko pitzatuta daude. Ura,

AZKEN HITZA

Ederra

“Politikari ekologistek oso gutxi hitz egiten dute edertasunaz, baina zer arraio, zuhaitz bat ez da egurra bakarrik, ederra ere bada. Ez dira ohartzen mundu zatar batean bizi garela, eta mundu itsusi horrek ez dituela gure barrenak elikatzen. Ni ortuan aritzeak elikatzen nau. Baratzean dabilenak ederki daki ezin direla aldi berean hazia erein eta uzta jaso, pazientzia behar dela, ez dagoela dena zure esku...Irakasle aparta izateaz gain magia hutsa da ortua. Hazi-txo bat landatu eta tomate kiloak batu. Ederra. Zergatik ez gara mintzatzen edertasun hortaz?”.

Komunitatea

“Jendeak bildu behar du, elkar lagundu, eta bere oinarrizko behar-izan oro asetzeko komunitateak sortu. Nik zuk egiten ez dakizuna egingo dut eta zuk nik egiten ez dakidana. Soldataren arabera funtzionatu beharrean, zergatik ez mugitu elkartasunaren baitan? Solidarioak bagara biziko gara. Bestela, hilda gaude”.

lurra eta eguzkia dauzkate, denetik ekoiztu daiteke bertan, eta hala ere %82a inportatzen dute! Alternatibak badaude, baina ez da egia alternatibak egote hutsagatik jendartearen aldaturiko denik. Jendartearen aldatzeko gizakia aldatu behar da, eta hezkuntzatik ekin behar zaio gizakia aldatzeari. Lehia eta nagusikeria bultzatu beharrean, zergatik ez zaie haurrei elkartasuna eta auzolana irakasten? Zergatik ez dizkiegu gaitasun praktikoak ematen egun osoa pantaila aurrean izpirituak paralizaturik eta errealtateetik desbideratuta eduki beharrean? Beraien behar-izanei erantzuteko gai izango ez diren belaunaldiak prestatzen ari gara. Are okerragoa, sistema hau elikatzen eta betikotzen duen hezkuntza sistema daukagu.

Zure ustez humanitatearen zibilizazio ahul eta hauskorrenean bizi garelako, agian?

Egitate bat da. Kendu ezantza, argindarra eta komunikazioa, eta zibilizazioa goitik behera amiltzen da. Apenas geratzen denez landa-eremurik, ez dago errekurtsorik. Hori hala deno, gizateriak asmatu duen zibilizazio hauskorrena izango gara. Erregaiarekiko erabateko menpekotasuna daukagu, horrek petrolioaren zaintzaren inguruko geopolitika determinatzen du, hortik gerrak sortzen dira, eta petrolio eskasia heldzean akabo festa. Horrek indarkeria basatia eta geopolitika hipokrita dakartza. Diktadore baten heriotzaren atzean gehien-gehienetan daude petrolio, zentral nuklearretarako erregaiak, gasa edo uranioa. Petrolio, argindarra, gasa eta komunikaziorik ezean haizea hartzera goaz! Bitartean, jabetzen zara Afrikan bizitzen segituko dutela, ez dutelako euren zibilizazioa horren arabera eraiki, naturak emandakoaren arabera baizik. Horregatik itzuli behar dugu naturak emandakora. Natura beti erreproduzitzen da. Denbora eta gari ale bakar bat aski dira gizateria osoa elikatzeko. Ez ahantz bizitzaren potentziala izugarria dela, gizateriaren tontakia bezainbatekoa. ■



JOKIN AZPIAZU CARBALLO

Maskulinitatea: eraldatu, irauli edo baztertu

Umorez III jardunaldiak antolatu zituen Bertsozale Elkarteak otsailean. Bertan, Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak tesinako edukiak azaldu zituen Azpiazu Carballok. Orriotara ekarri ditugu hitzaldiko hainbat pasarte, baina ez galdu bideoz ikusteko aukera www.argia.com/multimedia kanalean.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

Aldatzen ari da maskulinitatea?

Gauza guztiak ari dira aldatzen, eta maskulinitatea ere eraldatzen ari da, noski, ezinezkoa litzateke bere horretan mantentzea. Baina beste gauza bat da aldaketa horiek egintzat ematea eta aldaketa horiek beti onerako direla pentsatzea. Akademia munduan bi muturretako irudikapenak ditugu: aldaketa gauzatu denaren irudikapena, eta gauzak ez direla asko aldatu adierazten duten adibideak.

Ni ez naiz kokatzen ez batean ez bestean. Aldaketak ez baitira unibertsalak, talde ikusgarri batean gauzatu badira ere. Gauza bat da esatea guk ezagutzen dugun jende dezente bere maskulinitatearen inguruko kuestionamendu eta eraldaketa interesgarriak egiten ari dela, eta beste gauza bat da esatea maskulinitatea krisian dagoela.

Arlo akademikoa feminismotik urrunduz

Ikerketa bi alorretan garatu dut: arlo akademikoan zer gertatzen ari den aztertu dut marko teorikoan. Eta bestetik, gizon taldeetan, gizartean orokorrean zer gertatzen ari den landu dut. Horretarako gizon taldeek egin dituzten manifestuak eta idatzi laburrak aztertu ditut. Beraz, aztertutakoa ez da izan gizon horiek esan dutena, publikoki esan dutena baizik.

Arlo akademikoan, Euskal Herrian oraindik ez da apenas maskulinitatearen buruzko ikerketarik gauzatu. Garaiz gaude beraz, ikerketei hasieratik ikuspegi kritikotik eusteko. Beste herrialdeetan maskulinitatearen inguruko ikerketak zer propio bat bailitzan garatzen ari dira, unibertsitete askotan departamen-



“Teoria feministetan asko landu diren gai batzuk maskulinitatearen teorietan ez dira agertu ere egiten. Urruntze horrek pena ematen dit”.

Curriculuma

Ermuan sortua 1981ean. Txikitatik giro feministan hazia. Bartzelonan bizi izan zen hiru bat urtez, eta bertan gizon taldea sortu zuten. 2008an itzuli zenean, maskulinitate taldeen goraldia sumatu zuen. Soziologia ikasketak bukatu eta Generoa eta Ikerketa Feminista Masterra egin zuen. Egun Begirada Feministak jardunaldiak antolatzen ditu unibertsitatean, Soraluzeko Komite Arroxan ari da, eta Joxemi Zumalabe fundazioan.

tuek izen hori daramate. Horrek irudikatzen du maila teorikoan feminismoarekiko ematen ari den urruntzea. Maskulinitatearen inguruko ikerketak asko zentratu dira identitate kontuetan, zer den gizon izatea, zer adierazten duen horrek, nola mugitzen garen, nola egiten ditugun gure erritualak, nola eta nola eta nola... eta ez hainbeste teoria feministak garatu dituen esparruetan: hegemonia, boterea... Urruntze horrek pena ematen dit. Teoria feministetan oso garrantzitsuak izan diren kontu batzuk, maskulinitatearen teorietan ez dira agertu ere egiten.

Nire tesinarako gai zehatz bat hartu nuen: subjektu politikoa. Zer gertatzen da mugimendu feministak azken 30 urteotan egin duen eztabaida horrekin? Garai batean emakumea gauza bat eta bakarra zenean, feminismoan subjektu politikoa emakumea zen: nor da feminismoaren subjektua? Emakumea.

Nork egiten ditu aldaketak? Emakumeak. Baina gai hori problematizatu egin zen, eta zera planteatu zen: emakumea izatea gauza bat da eta emakume pobrea izatea beste gauza bat. Eta emakume beltza izatea beste kontu bat. Eta emakume lesbiana beste kontu bat. Hor feminismoak lan handia egin du: nola artikulatu mugimendu bat, nola artikulatu subjektu estrategiko komun baten aldarrikapen eta ideia batzuk, aldez aurretik jakinda ez garela ari unibertsala den subjektu batez. Ez dakit nik hainbeste tinta beste ezerk sortu ote duen azken 30 urteotan feminismoan. Oso eztabaida interesgarria da, maila politikoa mugimendu askori eragiten diena, oso ekarpen interesgarri eta garrantzitsua da... eta maskulinitatearen inguruko teorietan ia ez da inon ageri. Horrek kezka sortzen zidan eta horri buruzko azterketa egin dut marko teorikoan.

Emakume subjektuaren haustura horrek eraikuntza sozialaren ideia azpimarratzen du, alegia, ez gara jaiotzez zerbaite, eraiki egiten gara, eta eraikuntza horretan faktore ezberdinek eragiten dute, naziotasunak, klase sozia-

lak, arrazak, sexu aukerak, eta abar. Maskulinitate taldeek ere planteatzen dute deseraikitzea: “Goazen deseraikitza gure nortasun hori eta goazen ongi dagoena hartzera eta gaizki dagoena baztertzea”. Baina saiatu nintzen zalantzan jartzen subjektuaren deseraikuntza berdina izan daitekeenik. Feminismoan subjektuaren deseraikuntza egiteak izan duen koste politikoak ez du zerikusirik maskulinitatearen deseraikuntzarekin. Ikaskide batek esaten zidan, “emakumeek 200 urte daramagu subjektu bat lortu nahian eta orain lortu dugunean, esan behar diguzue deseraiki egin behar dugula?”. Asko haserretzen zen, eta arrazoiarekin. Mugimendu feministak ausart hartu du erronka hori. Uste dut maskulinitate taldeetan askotan ikuspegi eroso eta lasaia egiten dela.

Zer da “matxo” izatea, zer gizon?

Gizon taldeetako diskurtsoen analisisira pasako naiz. Badakigu zer den “matxoa” eta badakigu hori ez dugula nahi. Baina zer da gizon izatea? Gizonak aldatu egin behar direla esaten dugunean, zeintzuk dira aldaketa horien subjektuak? Nor da aldatu behar den gizon hori? Topatu nuen gauza interesgarrietako bat izan zen harreman heterosexualetan kokatuta zegoela diskurtso guztia. Eta diskurtso hori jasotzeko kandidatuak ere heterosexualak ziren eta bikote harremanean antolatutakoak, gainera. Are gehiago, gurasoak gehienetan. Oso erreferentzia gutxi topatu nituen beste maskulinitate batzuen eraldaketa beharraz.

Eta hori arriskutsua iruditzen zitzaidan bi aldetatik. Batetik, erregimen heterosexual eta familiarrean ez gaudenok ez gara gizonak? Nik ez daukat arazorik horrekin, esango nuke “oxala!”. Baina beste kezka hau larriagoa iruditzen zait: guk ere ez dugu aldatu behar? “Bizitzaren alde gaiztoan” jaio garenok jada dena egiten dugu ondo? “Marikita bazara nola

izango zara sexista edo matxista?, ezinezkoa da”, arrazonamendu hori oso larria iruditzen zitzaidan. Nik gay giroan ezagutu izan dudana matxismo atzerakoia sekulakoa izan da.

Aldatu behar duen gizonaren oso irudikapen hertsia topatu nuen. Zer da “matxoa”? “Andaluz (edo latinamarikarra edo afrikarra, baina kanpoko), hargina, oso matxista agerikoa, piroplaria”... Inork ez du bere burua horrekin identifikatzen. Baina horrek ez du esan nahi guk jarrera sexistarik ez dugunik. Iruditzen zait ez ote garen ari estereotipoaren kontra borrokan, errealtatearen kontra ari beharrean.

“Berdintasunak denontzako abantailak ditu’ errepikatzen da etengabe. Nik uste dut ezetz! Abantaila batzuk irabaziko dira, baina pribilegio batzuk albora utzi beharko dira”



“Badirudi gizonezkook egin behar ditugun eraldaketa bakarrak orain arte egin ez ditugun etxeko-lan eta zaintza lanak gure gain hartzea direla. Baina zer diogu esparruak galtzeaz? Badaukagu proposamenik?”.

Beste galdera bat ere ekarri nahi nuen: nortzuk ari dira aldatzen? Aldaketak teoria soziologiko, antropologiko, filosofiko maskulino ilustratuan zerikusi handia du boluntarismoarekin. Aldatu nahi dugulako aldatzen garela pentsatzen dugu. Eraldaketak barrutik kanporako prozesuetan kokatzen ditugu. Zergatik? Gizonezkoontzako eta zientzia maskulinoarentzako oso zaila delako onartzea gauzak gertatu egiten direla baina guk ez ditugula kontrolatzen. Duela aste batzuk lagun bat ikusten izan nintzen. HIESA dauka eta bajualdi gogor baten ondorioz ospitalean egon da. Gauza kurioso bat esan zidan: “Ni 60 urtera heltzen naizenean, heltzen banaiz, eta gizonak gizon izateari utzi izanaren krisian erortzen direnean, nik ez dut krisi hori izango. Zeren nik jada badakit zer den dependentea izatea, nik jada badakit zer den sexu harremanak izateko zailtasunak izatea, nik jada badakit zer den gizon ez-osoia izatea”. Bere kabuz egin al du hausnarketa eta berak planteatu al du aldatzea? Ez, bat-batean bizitzak egoera batean jarri du non maskulinitatea gidatzen duten printzipio nagusiak (autonomia totala, norberaren kontrola izatea eta abar) erori egin

“Zer da ‘matxo’-a? Andaluza, hargina, oso matxista agerikoa... Inork ez du bere burua horrekin identifikatzen. Baina horrek ez du esan nahi guk jarrera sexistarik ez dugunik”

zaizkion eta ezin dituen hain erraz berreskuratu. Gure herrian gizon etorkin asko dago, beren jatorrizko herrian oso lanbide “matxoak” zeukatenak eta orain jende nagusiari pixoihalak aldatzen ari direnak. Bere maskulinitateak kolokan jarri dira, baina ez beraiek aukeratu dutelako.

Eremuak irabazi bai, eta galdu?

Harridura handia sortu zidan etxeko lanen inguruan sortutako diskurtso horrek guztiak. Oso paper zentrala jokatzeko zuen gizon taldeetako proposamenetan. Aldiz, esparru publikoari begira ez zegoen horrenbesteko proposamenik. Badirudi gizonezkook egin behar ditugun eraldaketa bakarrak orain arte egin ez ditugun etxeko-lan eta zaintza lan guzti horiek gure gain hartzea direla. Hori egin behar dugu, beharrezkoa da eta zorretan gaude horretan. Garrantzitsua da esparru hori geure egitea, eta horretan ari gara, baina beste esparru batzuk ez ditugu utzi.

Norberak hainbeste lan ordu eta gero, etxera ailegatu eta etxean laguntzen du, primeran. Baina norberak ez du planteatzen bere lanaldia murriztea. Gizonezkoek ez dute lanaldirik murrizten, inkestek horrela esaten dute. Amatasun eta aitatasun kontuetan, gizonezkoek lagundu egiten dute, lehen baino askoz gehiago, noski, baina lanaren, karrera profesionalaren edo karrera akademiakoaren esparrua, hori ez da abandonatzen. Hori arazo bat da eta zera adierazten du: guretzat etxeko lanetan inplikatzeko hasterik balio anibalentea daukala: alde batetik faenatxo bat da, baina bestalde esparru bat irabazten ari gara, bere ondorio positiboak dituen. Baina zer diogu esparruak galtzeaz? Badaukagu proposamenik? Amantalak jantzi bai, baina katedrak kendu behar ditugu? Horrelako postu bat eskaintzen digutenean uko egin behar diogu? Lanaldi murrizketak hartu behar ditugu? Planteatu behar dugu ez ditugula kargu publikoak hartuko? Konplexua da eta ez dut esaten horiek direnik irtenbideak.

Horrek garamatza zera planteatzera: zertarako behar dugu aldatzea? Topatutako adierazpen argigarri bat hau izan zen: “berdintasunak denontzako abantailak ditu”. Hau etengabe errepikatzen da manifestu eta idatzietan. Eta nik uste dut ezetz! Abantaila batzuk irabaziko dira, baina pribilegio batzuk albora utzi beharko dira. Eta pribilegioak uzteak ez dakar abantailarik. Euskararen kasu bera da, Euskal Herrian euskaldun oso izatea ez da abantaila, baina ahaleginak egiten ditugu nahi dugulako edo hala behar duela sinisten dugulako. ■



Krisiak areagotutako topikoak desegiten

Euskal Herrian ez omen gara arrazistak eta xenofoboak.
Ea hurrengo baieztapenetatik zenbatekin egiten duzun bat.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Etorkinek prestazio sozialak eta diru-laguntzak kentzen dizkigute. Azterketa guztien arabera, etorkinek jasotzen dutena baino ekarpen handiagoa egiten diote Gizarte Segurantzari. Aintzat hartzekoa da gehienak gazteak direla –lanerako adinean, beraz– eta erregularizatua dutela beren egoera –Euskal Herriko etorkinen %80-85ak erregularizatuta du bere egoera eta egoitza-baimena du–, eta ondorioz zergak ordaintzen dituztela, gainerakoon moduan (Espainiako Estatuan iaz argitaratutako *Inmigración y Estado de bienestar en España* txostenaren arabera, bi edo hiru aldiz handiagoa da egiten duten ekarpena, sortzen duten gastua baino). Gainera, ez dago atzerri-tarrentzat propio pentsatutako inongo prestazio edo diru-laguntzarik; norberaren egoera pertsonalaren eta betetzen dituen baldintza ekonomiko eta sozialen arabera jasotzen dira laguntzak. Euskal Herriko datu zehatzik ez dagoen arren, “ongizate baldintza onenak ditugu, eta beraz, prestazioen atzetik baletoz, Euskal Herrira etorriko lirateke, baina etorkin kopurua handiagoa da Espainiako Estatuoko beste zonaldeetan, batik bat Valentzian, Murtzian, Andaluzian... Nekazaritzan, turismoan edo (orain arte) eraikuntzan aritzeko aukera hobea dutelako han”, diosku Gorka Moreno soziologo eta Ikuspegi Immigrazioaren Behatoki zuzendariak. Alegia, joerek erakusten dute lan merkatuagatik mugitzen direla etorkinak, eta ez diru-laguntzek erakarrita.

Etorkinak laguntzera bideratutako gastu publikoak are gehiago hondoratzen gaitu, krisi garaian. Egia esan, hainbatek (sustatu) duen pertzepzio faltsua da gehiegizko gastu publikoak eraman gaituela krisi ekonomikora. Politika neoliberalak areagotzearen ondorioz, 1990eko hamarkadatik babes sozialerako neurri eta inbertsioek

behera egin dute Europar Batasunean, eta zehazki Espainiako Estatuan, duen aberastasun mailarekin legokioketena baino askoz gutxiago inbertitzen da gizarte-ongizatean. Espainia da, hain zuzen, herritar bakoitzeko inbertsio publiko gutxien egiten duen Europar Batasuneko Estaturik.

Osasun zerbitzuak gainkargatzen dituzte. Gezurra. Ikerketa guztiek diote atzeritarrek oso gutxi kontsumitzen dituztela zerbitzuok. Ivan Vergara mediku nafarrak berretsi digunez, “etorkinen taldea gehienbat lanera etortzen den jende gazte osasuntsua da eta ikerketa pila bat ditugu argi uzten dutenak bertako herritarrek baino gutxiago erabiltzen dituztela baliabideak”. Osasun zerbitzuak batez ere adineko jendeak kontsumitzen ditu, eta hori hala dela jakinik, Gorka Morenok azaldu du EAEn 65 urtetik gorako etorkinak %2 baino ez direla. Atera kontuak. Espainiako Estatuan, Osasun Medikuntzako Espainiako Elkartearen ikerketek diote bertakoak

baino %50 gutxiago doazela medikuntza atzeritarrek.

Lana kentzen digute. Soziologoaren esanetan, ikerketek frogatu dute bertakook utzitako zuloak edo hutsuneak betetzen dituztela etorkinek. Eusko Jaurlaritzak duela bi urte egindako azterketaren arabera, etorkinen artean lan sektore garrantzitsuena etxeko lan eta zaintzarena da. Oro har, lanpostu prekarioak eta soldata baxuak dituzte, eta oso sistema duala da EAEko: “Bertakoen gehiengoa ongi bizi garela erakusten dute datuek, eta kanpotik etorritakoen gehiengoa berriz, egoera prekarioan”.

Baina krisi garaiotan, gure konpetentzia dira. Aurreko ildoari lotuta, egunetik gauera etorkinak konpetentzia bilakatu direla dirudi, lana bilatzeko orduan adibidez, eta gaizki begi-

“Lapurtzen dutela? Ez behintzat horretara datozelako, baizik eta bazterketa eta pobrezia askoz handiagoa delako etorkinen artean”

Gorka Moreno, soziologoa



ENRIQUE BAIGORRI

ratzen ditugu. Horren adierazgarri dira ARGIAN kaleratu genuen *Talaiaren arabera aldatzen da pertzepzioa* erreportajeko hitzok: “Bertan jaiotakoen egoera ekonomikoa zenbat eta hurbilago egon etorkinenetik, orduan eta okerragoa da atzerriarrenganako pertzepzioa, lehiakidetzat dituztelako”. Bada, batetik, Eusko Jaurlaritzak 2012an kaleratutako EAEko datuen arabera, krisiaren eraginez pobrezia egoeran dauden bertakoen portzentajea %3,3 da, eta immigranteena %39,9. Eta bestetik, benetan konpetentzia balira, zilegi litzateke, ala ez dituzte gure eskubide berak merezi?

Gaizkileak dira. Espainian iaz Carlos III unibertsitateak egindako ikerketaren arabera, azken urteetan etorkin gehiago iristeak ez du delinkuentzia areagotu. Beste gauza bat da kartzelan etorkin gehiago egotea, zigor-sistema zorrotzago jasaten dutelako bertakoek baino. Ez dago Euskal Herriko datu zehatzik, baina Morenok dio abiapuntua argi izan behar dugula: lanera datoz etorkinak. “Lapurtzen dutela? Ez behintzat horretara datozelako, baizik eta bazterketa eta pobrezia askoz handiagoa delako etorkinen artean”. Hedabideek, sarri, ez dute gehiegi laguntzen, delituak jatorri atzerriarrek lotzen baitituzte maiz.

Analfabetoak dira. SOS Arrazakeriak egindako azterketen arabera, Ekialdeko

Ivan Vergara mediku nafarrak berretsi digunez (argazkian, bere kontsultan, hainbat paziente atzerriarrekin), “etorkinen taldea gehienbat lanera etortzen den jende gazte osasuntsua da eta ikerketek argi uzten dute bertako herritarrek baino gutxiago erabiltzen dituztela baliabideak”.

Europatik eta Latinoamerikatik etorritako jendeak guk baino ikasketa maila altuagoak ditu, batez beste. Maila altuagoa izan arren, ordea, lan okerragoak lortzen dituzte.

Etorkin oldea etorri da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren %6,9 dira etorkinak, eta Nafarroako %10,7. Bestalde, daukagun ongizate maila mantendu nahi badugu, ikuspuntu demografiko batetik, ezinbestekoak dira etorkinak, Morenok azpimarratu duenez.

Ez dute integratu nahi. Soziologoak azaldu digunez, etorkinen artean egindako inkestek diote Euskal Herrira etorri direla hemen geratzeko eta bizitzeko asmoz, eta integratuta sentitzen direla.

Tira, krisiarekin arrazakeriak eta xenofobiak gora egin ohi duen arren —adibide garbia dugu Grezian sortu den Urrezko Egunsentia alderdi ultra-eskuindarra—, gure kasuan baikorra da Gorka Moreno soziologoa. Krisiak ez omen du immigranteenganako jarrera ezkorra areagotu, eta krisiaren biktimatzat ditugu gehiago, eragile baino. Nabarmendu du, gainera, Euskal Herriko politikariek oro har —“eta salbuespenak salbuespen”— arduratsu jokatuta dutela eta ez dutela immigrazioaren erabilera alderdikoirik egin, “eta hori oso garrantzitsua da, arrisku faltsuak ez sortzeko”. ■



URKIOLA
Sagardotegia

Igara 37 - Ibaeta auzoa · 20018 Donostia
☎ 943 21 01 68

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Hugo Chavezen heriotza eta Venezuelako etorkizuna

EZ DUT VENEZUELA zuzenean ezagutzen, baina oso erakargarria iruditu zait herrialde horren bilakaera azken urteetan. Tristura sentitu dut Hugo Chavez presidentea hil denean, bere herriarekiko hartu zuen konpromisoa bete egin zuelako eta ordura arte ahotsik ez zeukan jendeari benetako itxaropena eman ziolako. Egun hauetan ikusi ditugun irudietan argi dago herri xumeak maite zuela, eta, aldiz, beste batzuek gorrotatzen zutela. Bada, estimu eta gorroto horren arrazoiak aztertzea guztiz ezinezkoa da bere politika baloratu ahal izateko.

Chavezek hauteskundeak irabazi zituen 1999an lehen aldiz, eta harrez gero, bata bestearen atzetik, nazioarteko begiraleek ez zuten inolako irregulartasunik aurkitu. Egia da, hasieran, 1992an, estatu kolpe militarra eman zuela, baina zigortua izan zen eta gero demokrazia formalaren bide-tik saiatu zen, arrakasta handiz. Beraz, alde horretatik, ez dago aitzakiarik.

Ez da, bada, harritzekoa jende eta talde aberatsek Chavez presidentea gorrotatzea, ez baitiote inolako etekinik atera bere politikari, ez baitu enpresa proiektu pribatu potolorik bultzatu. Horregatik egin diote aurre, horregatik gorroto dute biziki eta ez diote barkatuko bere ibilbide konprometitua

Chavezek bultzatu duen prozesuan, beste prozesu politikoetan bezala, akatsak eta mugak aurki daitezke, noski. Baina askoz ere gehiago dira bere lorpenak: pobrezia jaistea, zerbitzu publikoak eta boterea herriaren zerbitzura jartzea, eta azkenik, Amerikan mugimendu politiko berria sustatzea.

Chavezen politika soziala garbia eta ausarta izan da: hasteko, politika independentea egin du, bai multinazionalakiko baita Amerikako Estatu Batuekiko ere; horren ondorioz, petrolotik lortzen den aberastasuna, ordura arte pertsona eta talde pribilegiatuentzat zena, programa sozialetan inbertitu du, elikagaien merka-

tua Estatuan bertan antolatuz, familia txi-roei mozkinak eskudirutan banatuz eta doako osasuna eta hezkuntza bermatuz.

Datu zehatzak aipa daitezke: 1999an familia txiroak %42 ziren eta gaur, %26. Familia oso-oso txiroak %17 eta orain %7. Elikagaien kontsumoa, pertsonako eta urteko, 420 kilokoa zen 1999an eta gaur egun 511 kilokoa. Hezkuntzan ere aldaketa nabarmena izan da: irakurtzen eta idazten ez zekizkiten bi milioi herritar alfabetatu dira; eskolaurrean, 1999an umeen %43 zeuden eskolatuta eta gaur, %71. Bigarren hezkuntzan, %48 eta gaur %74. Unibertsitatean, Venezuela da Latinoamerika eta Karibe inguruan bigarren herrialdea, Kubaren atzetik; irakaslearen kopurua %170 igo da eta 2011n 934.688 ordenagailu eramangarri banatu ziren; osasun arloan zeresanik ez: inbertsioa %3.879 igo da 1999tik hona eta BPGaren %2,3 da; pentsiodunen kopurua ere handitu da %484, eta orduan populazioko %2,0 pertsonen pentsio bat jasotzen bazuten, orain %4,4 da.

Baina aipagarrienak ez dira “bakarrik” mikroekonomia datuak; makroekonomian ere aurrerakada ikaragarria egin du Venezuelak (BPGarekiko): Carlos Andres Pérez presidentearekin zor publikoa %65,8 zen, Rafael Caldera presidentearekin %49,8 eta Chavezekin %28,8 –aipatutako zerbitzuak bermatu eta gero—. Nekazaritza produkzioa %97 hazi da; desneplegu tasa 1999an %15,2 zen eta gaur %9,2; latifundiotik %54 lurra berreskuratu dira jabe txikientzat.

Ez da, bada, harritzekoa jende eta talde aberatsek Chavez presidentea gorrotatzea, ez baitiote inolako etekinik atera bere politikari, ez baitu enpresa proiektu pribatu potolorik bultzatu. Horregatik egin diote aurre, horregatik gorroto dute biziki eta ez diote barkatuko bere ibilbide konprometitua.

Venezuelako herriak aukera paregabea izan du Chavezekin. Espero dut aurrerantzean herriak bere testigua hartuko duela eta berak zabaldu duen bidea jarraituko duela.

Mila esker, Chavez presidentea. ■





Kolonbian, bake prozesuak emaitzak
emanen omen ditu hil batzuen buruan

Espainia-Frantziatan, hil batzuk nahi
lituzkete, bakearen emaitzak
ez bururatzekotan

Bakere fantastikoa,
errealismo hau ...



Mikel Irizar

TOPAGUNEKO PRESIDENTEA ♦



DANI BLANCO

Aberria, izatekotan

ABERRIA. Ez naiz oso aberri zalea. Eta, oro har, ez ditut oso gogoko beste ezer baino lehen patriota direnak. Patria hitza oso lotua ikusten dut bandera, lurralde eta mugekin. Eta gatazka epikoeekin. Patriotismoaren adierazlerik gorenena gehiegitan izan da odola ematea aberriaren alde. Aitaren etxea defendatzea, gorputz atalak eta arima galtzeraino. Makabroa, inondik ere.

TRIBUA. Nik tribuaren ideia erabili izan dut. Badakit oso primitiboa dela, erasotzen errazagoa, eta azalpena behar duela. Baina hobeto islatzen du nire sentimendua antzekoak sentitzen ditudan horiekiko. Izan, tribua da pertsona multzo bat, hainbat ezaugarri partekatzen dituen eta hainbat interes. Mugitu egin daiteke, eta errotzen denean sortzen du lurraldea, ezinbestean behar duen euskarri fisikoa. Baina tribuak pertsona du ardatz, pertsonaren eta taldearen bizia eta ongizatea helburu.

KOMUNITATEA. Boladan dagoen hitza da. Internetek asko indartu du eta mota askotako komunitateak sortu dira, inoiz oso interes bitxien arabera. Gurean debaluatu egin da esparru administratiboak izendatzeko erabili delako. Baina indartzen ere ari da, soziolinguistikari —esaterako— kontzeptu oso garrantzitsua da hiztun komunitatea.

HIZKUNTZA. Bueltan bueltan, iritsi naiz jomugara: irizpide batek markatzen badu nortzuk sentitzen

ditudan hurbilen, zein den nire tribua, irizpide hori hizkuntza da, euskara. Ez da bakarra, noski, balio asko partekatzen ditut bestelako pertsonekin ere, interes-talde askotako kide izan naiteke. Baina nire pozak eta nire tristurak, ilusioak eta amorruak bereziki lotzen dira euskararen eta euskaltzaleen egoerarekin, bilakaerarekin.

ARNASA. Zorionekoa naiz euskararen arnagune batean bizi naizelako. Seguruenik ez da txiripaz gertatu, eta bizitzan hartu ditudan erabakiak horren arabera hartuko nituen, beti konsziente izan ez banaiz ere. Orain gainera ikasi dut arnagunea ez dela hainbeste gune fisiko bat, arnagune izan gaitezkeela euskaltzale bakoitza, edonon gaudela ere, jarrera aktiboa hartzen badugu euskararen alde.

SUA. Jon Sarasuak aspaldian botatako metaforak balio du oraindik: aitaren etxean baino gehiago amaren suan dago muina, gakoa da euskararen komunitateak jarraitzea. Antolamendu politiko-administratibo bat izan daiteke lagungarriago beste bat baino, teknologiaren erabilera hizkuntzari mesedegarri zaion bezala. Baina horrela ez da berez bermatzen jarraikortasuna. Eta nik amaren sua dut maite.

Bai, bat izatekotan, euskara da nire aberria. ■

Ikasi dut arnagunea ez dela hainbeste gune fisiko bat, arnagune izan gaitezkeela euskaltzale bakoitza, edonon gaudela ere, jarrera aktiboa hartzen badugu euskararen alde



Amets
Arzallus



BERTSOLARIA

Idatziz pentsatu

EZ DUT ASKORIK idazten, baina postit-ez bete izaten dut bekokia, gero eta egokiagoa dut gainera, horretarako. Gauza tikiak idazten ditut. Honi buruz hari buruz niri buruz. Niretzat idaztearen zentzua ez da kaligrafia eder baten bilaketa, dimentsio literarioa duen zerbait sortu nahia, edo besterik gabe hitzen urraduratik zer musika ateratzen den entzuten jartzea, ez dut idazten plazer hutsez. “Nola pentsatzen duzu?” galdetu ohi du jendeak, eta badira ibiliz pentsatzen dutenak, ideiek ere gisa horretan bide egiten dutelakoan. Egiten

dute. Badira zigarro bati tiraka eta kebi-deari begiak emanik pentsatzen dutenak, inspirazioa arnasten ari direlakoan. Eta arnasten dute. Bada txofer doala pentsatzen duen jendea, meditazio isila paisaiari eskaintzen diona. Nik, neurea, idatziz pentsatzea dut, stylo-ari jarraituz iruditzen zait ene baitan aztarrika nabilela, iritziak korapilatzen ari naizela, hitzek laguntzen didate. Idatziz abiatzen naiz pentsatzera, eta batzuetan itzultzen naiz, zerbait besapean dudala. ■





Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

♦ ITZULTZAILEA

Inoiz ez bezalako aukera

“YOLANDA BARCINAK gaur gal-
tzen badu, bozak izanen dira, eta
baliteke *gaiztoak* gobernura iris-
tea; hori gertatuko balitz, ni
Jakara joanen nintzateke bizitze-
ra, Nafarroan zergarik ez ordain-
tzeko”. Horra hor Ollarrak
UPNren Biltzar egunean *Diario
de Navarra* (non bertzela?) ida-
tztitakoa. Hori aski izan zen,
zalantzan zeuden biltzarkideen
botoa Barcinaren alde makurra-
razteko. Barcinak, azken finean,
antzekoa errana zuen aurreko
egunetan; hau da, bera galtzaile
ateraz gero, gobernua arriskuan
egonen zela. Gobernuari esker
bizi diren UPNko kideek ez
zuten zalantzarik izan, eta dire-
nak eta ez diren guztiak joan
ziren bozka Barcinaren alde
ematera. Baten bat ospitalean
zegoen, eta taxi bat bidali zuten
haren bila, eta biltzarrean agertu
zen, sudurreko zunda eta guzti,
Barcinaren alde bozkatzeko.

Barcinak, azkenean, %51
eskuratu zuen, eta duela lau urte,
aldiz, %89. Emaizten ondotik,
batzuek eta besteek batasunaren
aldeko mezuak eman zituzten.
Oholtzatik, Barcinak dei egin
zion Alberto Cataláni agertokira
igotzeko; corellarrak, ordea,
ezezko borobila eman zion.
UPN bitan hautsita, kontua da
Gobernuari eutsiko dion ala ez.
PSNek, jakina, Catalánek irabaz-
tea nahi zuen, harekin akordioa
egiteko eta, gobernuan, Barcina-
ren ordezkari Catalán bera jartzeko.
Sozialistek kazetarien aurrean
erran dute ez dutela konfiantza-
rik Barcinarengan, eta dimisioa
eman beharko lukeela, baina ez
dute zentsura-moziorik babestu-
ko, ezta oposizioako gainerako
alderdiek Ezkerra taldeko parla-
mentariren bat presidentegai

aurkeztuta ere. Azken aukera
hori hizpide izan da oposizio-
ko alderdien arteko bileretan, zerta-
rako eta, behin gobernura iritsi-
takoan, hauteskundeak deitzeko.
Baina PSNri ez zaizkio bozak
komeni; ezta UPNri ere, jakina.
Roberto Jimenezek doi-doi %
60 lortu zuen duela urtebete-
ko nafar sozialisten kongresuan, eta
hori Nafarroako Kutxako dieten
eskandalua plazaratu aurretik.
Bozak orain egingen balira, PSNk
inoizko emaitzarik kaskarrenak
eskuratuko lituzke, eta UPNk
edo eskuindarrek ere bai. Ber-
tzela erranik, Bilduk, Geroa Baik

*Bozak orain egingen
balira, PSNk inoizko
emaitzarik
kaskarrenak
eskuratuko lituzke,
eta UPNk edo
eskuindarrek ere bai*

eta Ezkerrak gehiengo osoa lor-
dezakete Nafarroan, eta horrela-
ko aukerarik ez da sekula santan
izan; horrenbertzez, ez bada die-
ten soka luzetik edota CANen
afera ilun eta itsusitik bertzela-
korik ateratzen, PSNk txintxo-
txintxo joko du egungo erregi-
mena habetzerara, beti egin duen
moduan, bai eta hauteskundeak
ahalik eta gehien atzeratzera ere.
Rubalcabak, adibidez, oso argi
utzi zuen hori lehengoan
Iruñean, Barcinarekin besarka-
tzera etorri zenean; Barcinaren
gobernutik Iruñean
lizentzia lortu duen
SER irratiaren
bedeinkazio guztie-
kin, gainera. ■



• IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Uxue Alberdi



ANDONI OTAMENDI

Doinua: ETAre-
su-etenetik.



Parot doktrina

Parot doktrinak berriro
bazterrak haizatu ditu,
Madrilen ezin delako
justizia defenditu.
Estrasburgo bihurtu da
esperantza zirrikitu,
zirko honen zirkuluak
behingoz itxiko balitu!
Legeak epaitzekoak
badira zenbait delitu
gizatasuna ezin da
salatik kanpo gelditu:
legea ezin delako
mendekuan oinarritu.

Raul, Joseba, Gotzone,
Itziar, Inma, Jon, Ines...
Kartzela-urteak pilatzen
doktrinaren eraginez.
Gatazka politiko bat
jantzi gaituena minez,
zergatik lotu nahi dute
bakea eskuburdinez?
Zergatik ez gaitu hartzen
legeak esku berdinez?
Herra eta mendekua
al datoz leku eginez?
Bihotzak uler lezake
baina legeak egin, ez.

Utzi badituzte armak
itzali badute sua,
aurrera egiteari
deitzen zaio progresua.
Jan beza haizeak ziega,
enpatiak mesprezua,
justiziak zapalkuntza
ta herrigintzak kexua.
Has gaitezen eraikitzen
behetik gorako mezua:
politikak hartu dezan
benazko konpromezua,
bakoitzak egin dezagun
gure bake-prozesua. ■

ERBESTEA ABERRI IKUSKARIA
KRISKITIN DANTZA TALDEAMigrazioa,
dantzaren bidez kontatuta

Euskal Herritik kanpora joandakoak, bertara etorritakoak, joan beharra edukiko dutenak... Migrazio berbaren atzean mila irudi etorriko zaizkio norberari burura. Dantzaren bidez migrazioetan gertatzen dena eta bidaia horien sentsazioak batu ditu Durangoko Kriskitin dantza taldeak, *Erbestea Aberri* ikuskarian.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

DURANGOKO PLATERUENA kafe antzokiak eta hainbat kultur eragilek antolatzen duten Zilar Astearen kariatara ondu du Kriskitin dantza taldeak, *Erbestea Aberri* ikuskizuna. Aurtengoan —orain arteko laugarrena—, migrazioa hartu dute gaitzat eta antzerkia, musika, literatura, dantza eta beste zenbait arlo batu dituzte.

Kriskitineko koreografo Inma Garrastatxuri gai “aski potoloa” iruditu zitzaion azaldu zioten orduko: “Kontzeptu eta ideia asko sartzen dira, eta zelanbait gai gatazkatsua ere bada”. Dantzaren bidez istorio zabal bat kontatzea du helburu ikuskizunak, eta horretarako zenbait egoera planteatzen dira: “Ikusle bakoitzak bere interpretazioa emango die gero; batzuek hemendik joan zirenak ikusiko dituzte, beste batzuek etorri zirenak, eta beste zenbaitek euren burua ikusiko dute migratzen, edo gerra ostean gurasoak bizimodu bila etorri zirenekoa etorriko zaie gogora...”.

Kanpora joatera behartuta egon den jendearena ispilatu da, erbestearen planteamendua hartuta: “Ez da abentura bila joandakoa, bidaia zalea... Sustraiak atzean utzi eta kanpora joan denaren historia da”. Hain zuzen horregatik eman zaio *Erbestea Aberri* izenburua ikuskizunari. Egoitz Esturo dantzariaren aburuz, “ikuskizun hau hona etorritakoek, joandakoek eta joateko direnek ikusteko modukoa da”.

Baina sentsazioak dantzaren bidez transmitzea gaitza dela nabarmendu nahi izan du Inma Garrastatxuk: “Zer kontatu nahi duzun jakinagatik ere, nola egin behar zenukeen

asmatzea da gakoa. Gai konplexua da, bakoitzak bere modura ikusten baitu migrazioa. Etorritak ditut Extremaduratik lan bila etorri zirenak? Konparatu ditzaket orain Angolatik datozenekin? Gu emigranteak izan garelako gogoratzen dugu?”.

Dantzariak antzezle

Istorioak kontatzea eta komunikatzea da asmoa, eta helburu horretan, dantza antzerkia lakoa dela diote Kriskitineko kideek. “Edozein euskal dantza tradizionalan ere antzeztzen dugu”, diosku Garrastatxuk, “dantza ofizial batean, adibidez, sentitu egin behar duzu, eta zer edo zer komunikatu”. Eurek sortutako istorio bat denean, are nabarmenagoa da Garrastatxuren berbetan: “Antzezpenik gabe ez da komunikaziorik”. Begirada, keinuek... gorputz osoak kontatzen du zer edo zer. Hasteko, beraz, kontatu behar den istorioa barneratu egin behar dute dantzariak. Horretarako gaiari buruz berba asko egin dutela azaldu du Egoitz Esturok: “Batzuetan Inmak ideia bat dauka, ez diozu ideia harapatzen, dantza egiten duzu, baina berak igarri egiten du ez duzula ideia harapatu, ez zarela transmititu beharrekoa transmititzen ari”.

Duela bi urte 1980ko hamarkadaren gainean egindako Zilar Astea ekarri du gogora. Orduko hasierako entseguetan luze jardun zuten gaiaz: “Batzuek sei urte besterik ez genituen 80ko hamarkadan, beste batzuk jaio barik zeuden... Gertatutakoa ezagutu egin behar duzu, jendeak zelan sentitu zuen, hori guztia barneratu egin behar duzu”.

“Gai konplexua da migrazioa, bakoitzak bere modura ikusten baitu. Adibidez, konpara ditzaket Extremaduratik lan bila etorri zirenak eta orain Angolatik datozenak?”

Inma Garrastatxu
Kriskitin taldeko
koreografoa



KRISKITIN DANTZA TALDEA

Iaz 25 urte bete zituen Kriskitin dantza taldeak, eta azken urteotan istorioak kontatzeko hainbat ikuskizun antolatu dituzte. Horrelakoak egiten hasi zirenean zaila egiten zitzaizela gogoratu du Inma Garrastatxuk: “Dantzariak ez zeuden ohituta, eta ez zuten nahi. Adibidez, musika bat entzun eta bakoitzak ateratzen zitzaiona dantza egiteko eskatzen nien, eta geldi geratzen ziren”. Astiro-astiro moldatzen joan dira, eta gustura ibiltzen dira orain sorkuntza prozesuetan. Aurtengo Zilar Asterako, hasieran, bi aukera planteatu zituzten: bata, errazagoa egin eta talde gehiagogaz nazioarteko jaialdi bat antolatzea, lehenagotik dakizkiten dantzekin; eta bestea, istorio bat sortzea. “Denok ados ginen, istorio bat transmititu gura genuen”.

Dantzaren eskemak apurtu beharra

Kriskitin taldekoentzat erronka handia izan da hiru urte Zilar Asteko gonbidatuak izatea. Aipatu bezala, duela urte bi 80ko hamarkada izan zen gaia, eta iaz, Durangoko bonbardaketa. Gaiak oso desberdinak dira, baina oso indartsuak izan direla diote. 80ko hamarkada-koan antzerki obra baten barruan bi eszena kontatu zituzten: manifestazio bat eta droga xiringatze bat. Dantzarekin zituzten eskemak apurtzen joan dira erronka horietan, eta esaterako, manifestazioan Su ta Gar taldearen *Jo ta ke* abestian Dantzari-dantzako pausoak sartu zituzten. Iazko Zilar Astean, gerrak Durangon eragindakoak kontatu zituzten, eta Kriskitinek emakumeen kartzelari buruzkoak dantzatu

Kriskitin taldeko kideak *Erbestea Aberri* ikuskizunerako entseguan.

zituen. Gogorra izan zela dioskute: “Lan handia egin genuen eta jendearengana heldu ginen, jende nagusia negarrez ere hasi zen”.

Zilar Astean Plateruenak eta talde kolaboratzaileek egiten duten lana oso aberatsa da Egoitz Esturoren berbetan: “Oso esperientzia polita da denok gai bat hartu, horretan murgildu, landu eta gero jendeari eskaintzea”. Garrastatxuk gaineratu du egindakoak ez duela irabazi ekonomikorik ematen: “Diruaren truke barik, esperientziagatik eta erronka betetzeagatik egiten dugu lan taldeok. Niretzat hori oso garrantzitsua da”.

Irabazi, irabazten dute, hala ere: esperientzia, taldearen eboluzioa, erronketan murgiltzea, gauza desberdinak sortzeko gaitasuna. ■



Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea



www.antzerkizale.com

☎ 675 945 734

Antzerki zaitut!

«Luzaroan rocka besterik ez da izan Euskal Herrian»

Fermin Muguruzaren 2008ko biran sortu zen Esne Beltza, atzerriko hoteletan emandako orduetan. Jarraitzaile asko izan dute hasieratik. Esperimentua maite du talde honek, eta reggae, ska, rock, doinu latinoak eta musika herrikoia batuz erakusten du asmamena. *Gazta zati bat-en* soinu banda eta Korrikako kantuak argitaratu dituzte azkenaldian. Zenbait kidek Fermin Muguruzaren *No more tour* birarekin egingo dute bat, eta Esne Beltzak urtebeteko atsedena hartuko du.

| IKER BARANDIARAN |

Lehenengo diskoarekin nongoak zareten erakutsi zenuten; bigarrenarekin bidaiatu eta kanpoko ezagutu zenuten; eta hirugarrenarekin guztia batu duzue. Nolakoa izango da hurrengo lana?

Oso berritzailea izango da. Bai moldean, baita musikalki ere. Gure DJa ari da zenbait musika doinuren bila, ikerketa dezente egiten ari gara, kanpoan entzuten dena hona ekartzeko. Aurrekoetan ere egin dugu, baina oraingoan sakondu nahi dugu. Izango da kanturen bat Esne Beltzaren tipikoa, baina lauzpabost abesti ezberdin eta berritzaile nahi genituzke egin. Era berean, datorren urteko zuzenekoak ere aldatu nahi ditugu.

“Esne Beltza: zuek gabe ezereza, zuekin bagara”. Zer ematen dizuete jarraitzaileek?

Urte asko daramagu musikagintzan eta dene-tatik bizi izan dugu. Baina jende dezente izan dugu atzetik hasietatik, eta beraiek ematen digute indarra kantuak egiteko. Horren ordaina, urtero disko berria egitea.

Zein da sekretua hainbeste jarraitzaile –eta adin guztietakoak– izateko?

Harrigarria da. Lehenengo diskoarekin gure adineko jendea genuen alboan; Kilometroak-eko kantua egin genuenetik gaztetxoak; eta *Esne Zopak*-ekin jende heldu eta nagusia. Gure kontzertuak arraroak dira, 12koetatik hasi eta ia 80 urte artekoak biltzen direlako. Arraroa eta polita da.

Esne Beltzak world music egiten du?

Baliteke, kultura desberdinak nahasten ditugu. Saiatzen gara kanpokotik ikasten, baina

hemen ikasi duguna ere erakusten. Kanpoan dagoenari begira dago hemengo jendea, handik zer ekarri, hemengoari erreparatu gabe. Baina biak egin behar dira, kanpokoek badute gudanako interesa eta gure nortasuna argi erakutsi behar dugu. Kontzertuetan beti daukagu atal bat gurea, gure herrikoa, erakusteko.

“Ez dut hilabeteko soldata irabazteko kontzertuak egin beharra izan nahi, jotzeko gogo da izan nahi dudana”

Egia da Esne Beltza talde erabat asanblearioa dela? Erabakiak guztion artean hartzen dituzue-la beti?

[Barreak] Bai, batzarrak egiten ditugu uneoro. Asko gara eta ez da batek esan eta besteok jarraitu. Adibidez, taldeko batek ezin badu kontzertu bat eman, ez diogu beste trombonista bati deituko.

Taldekieok beste lan batzuk izateak alde onak eta txarrak ditu: ezin taldeari gehiago eman, baina hankak uneoro lurrean izatea, esaterako...

Bai. Taldekide guztiok egiten dugu lan. Etzakiten garaian musikaz bizi nintzen, baina ez nintzen oso eroso sentitzen beti nengoelako hilabete bukaerara nola helduko nintzen arduratuta, kontzertuak eman behar horrekin kezkatuta. Ez dut behar hori izan nahi, gogo da izan nahi dudana. Orain bi urte kontzertu ugari egin genituen, 70 bat, eta bukaerarako



SAIOA GAULUNAK

konturatu ginen ez geundela hain motibatuta. Horregatik, iaz gutxiago jotzea erabaki genuen, gogoz aritzeko.

Nolakoak dira Jon Garmendia 'Txuria'-ren hitzak? Zer eskatzen diozue?

Txuriak eta biok oso konexio berezia dugu. Abesti bat ematerakoan, segituan daki zer kantu mota egin nahi dugun. Eta gauza bera gertatzen da hitzei musika jartzerakoan. Bera gure letra egilea da, eta ni bere musika egilea. Txuria 11. taldekidea da.

Euskal Herrian 80ko hamarkadatik hona doinu gogorrek izan dituzte jarraitzaile gehien. Zuek dantza eta kolorea gehituta apurtu duzue hori?

Rocka besterik ez da egon hemen luzaroan. Nik beste estilo asko entzuten nituen, baina hemen beti zegoen musika bera –gustuko ere badudana– eta ez ginen irekitzen. Orain, azkenean, jendea ireki da musikan eta, rockaz gain, gauza asko entzuten ditu. Esne Beltza ere hortik irten da, ez horregatik, baina bai hortik.

Esne Beltza taldearen kontzertua. Xabi Solano argazkiaren erdian, eskuin besoa altxata eta bestean soinua duela.

Uste baina jende gehiagok egiten du *Freedom* oihua munduan?

Uste baina gehiago, baina normalean oihukatu nahi duena isilarazten dute. Bidaiaitzean asko ikasten dugu hortaz, jende asko ari dela oihuka; eta hemen ere oihukatzen dela erakusten dugu guk.

Zer nolako garrantzia dauka trikiak eta euskal folkak gaur egun Esne Beltzan?

Euskal folkak baino gehiago, musika herrikoia, esango nuke; komeni da horiek bereiztea. Gogoan dut *Ikusi mendizaleak* jo genuen batean gertatutakoa. Halako kantuekin errebendikatu nahi ditugu herri txikiak jaiak, horien aldekoak garelara. Kritikari batek idatzi zuen kantu hori jotzean umeen kanpamendu batean geundela ematen zuela. Kristoren mina egin zidan, ni auzo batekoa naiz eta kantu hori euskaldunontzat oso hunkigarria da. Gainera, jotzen dugunean jendea kantua abesten hasten da, eta hori energia da, indarra. Hori herri giroa da, eta ez euskal folka. Euskal folka ere gustuko dut, baina ez da gauza bera. Guk abesti hori egiten dugu Bilbon, Ereñozun, Arrasaten edo Japonian, nongoak garen erakusteko, giroa alaitzeko, trikitixa jotzeko, eta aldarrikatzeko herrietako jaiak, gure jaiak.

Elkarte, talde eta mugimendu ugari eskatuta egin dituzte kantuak: Udalbiltza, Kilometroak, Piratak, Korrika... Zer sentitzen da kantu hori egiterakoan eta gero abesterakoan?

Guk ez dugu deitzen abesti hori egiteko, beraiek deitzen digute, eta ezetz esatea ez zaigu irteten, itsusia litzateke, beraiek sekulako lana egiten dutelako. Ahal den hobeak egiten saiatzen gara, eta beti ere aldarrikapen hori ahal den urrutien eramaten. Abestiak laguntzen dio proiektuari aurrera joaten, baina garrantzitsuena proiektua bera da. ■



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 112 dokumental eskura

Amerikanuak
Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko errebolta
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Garrasia Saharatik
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarrria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathón
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com



EGUZKI
BIDEOAK

elkarlanean



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Maite Artola kazetariak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


		7	1		6	4	8	
	8		3	7	2	5		
	1	5	8				6	3
			7			1		
9	5			2			7	6
		3			5			
5	7				9	8	1	
		9	2	8	7		3	
	3	8	5		1	9		

Zaila

	9	2	8	4				
	5	3	7		1			
4						9		
	7		5				3	
8								4
	6			4		2		
		1						3
			4		5	2	1	
				3	9	4	8	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Ohar. 2.-Zaintza. 3.-Beheratu, gutxitu. 4.-Temak. 5.-Usu, maiz.

Kike Amonarrizen umorea



Pagoak eta haritzak

Gaurko hau Sagrario Alemanek EKTn kontatutako historia polita da.

Astezuri horietako batean elkar-tu omen dira Belaguan Marcillako San Bartolomé eskola publikoko ikasleak eta Altsasuko Iñigo Ari-tzako ikastolakoak.

Kanpoaldean jolastean ari zire-la, Marcillakoek Altsasukoak eus-karaz ari zirela entzun eta halako batean mutiko batek hauxe galde-tu omen zion altsasuar bati:

– ¡Oye! ¿Vosotros sois de pago?

– ¡No! ¡Nosotros de Pago no, nosotros de Aritza!

Soluzioak

Erraza

3	8	7	1	5	6	4	8	2
4	8	6	3	7	2	5	9	1
5	9	2	8	7				
8	2	4	7	6	3	1	5	9
9	5	1	4	2	8	3	7	6
7	6	3	9	1	5	2	4	8
1	4	9	2	8	7	6	3	5
6	3	8	5	4	1	9	2	7

Zaila

1	8	2	8	4	6	3	7	4
6	5	3	7	9	1	8	4	2
4	8	7	2	5	3	9	6	1
2	7	4	5	6	8	1	3	9
8	1	9	3	2	7	6	5	4
3	6	5	9	1	4	7	2	8
7	4	1	6	8	2	5	9	3
9	3	8	4	7	5	2	1	6
5	2	6	1	3	9	4	8	7

Puzzlea:

“Notizia ez da zer esan den bakarrik, non esan den baizik. Guk garrantzi handia ematen diegu gurean esandakoei. Gurean esan izanak plus bat dauka”.

5x5:

1. Abisu. 2. Babes. 3. Ibitu. 4. Serak. 5. Usuki.



Helduen literatura | POESIA

Uraren aroak
Joan Aldamizetxebarria
Ediciones Beta, 2012

Esperientzia eta izarrak

DENBORA IGAROTZEN EZ DENEAN (2002) eta *Bibotzaren lautadak* (2004) poemarioen ostean, Ediciones Betarekin hirugarrena du Tarragonan jaiotako gernikarrak *Uraren aroak*. Beretzat ez ezik ingurukoentzat eta entzun gura duten guztientzat idazten duten asko legez autoediziora emana, handinahi barik diosku, eskertzetan, zergatik ekin dion berriro poesiaren bide malkartsu, ederrari: “Seguruenik liburu hau sortzen hartu dudun plazerrik handiena lerro hauek idaztea da, azken urte gorri hauetan beraien laguntza, babesa eta arretak eskaini dizkidatenei eskerrak publikoki emateko”.

Liburua berpizte batekin hasten da, edo lozorroarekin: “Atzean utzi dut Orion ikusten ez deneko aroa”. Beraz, neguko nebulosa ikusten ez deneko aroa utzi badu atzean, Aldamizetxebarriari negua hasi zaio. Edo uda australa. Izan ere, bidaia liburu bat da *Uraren aroak* hau, itzuleran kontatutako istorioa, nostalgia bihurtutako zir-kulu baten ixtea.

Denborarik eza, bidaiari baten ikuspegi zabala, eta naturarekin eta sentimenduekin nahastean den batasunaren filosofia bat ageri da hemen, eite sano klasikokoa: “*Atzaparkada izoztuek/ aurpegia zurbildu digute/ (...) Badator./ Txorien logurarekin batera./ Doluz jantziko dira kaleak./ Dolua izango da gure bibotzetan*”. Hustasunean oinarritzen den ikuspegi zabala horrekin idatzia da *Uraren aroak* eta, zentzu horretan, egia da Aldamizetxebarriaren arnasa luzeko poemak (*Atzo iluntzean, Bidea egiten, Bat-batean*) badutela sakontasun bat atsegina eta pausatua. Ezkorra ere bai, baikorra beste. Kontrajarrita ageri dira, finean, disimulatzen ezinezkoa den bitalismoa eta pentsamendu landua, narratibarentzat egiten diona, poesiaren arrastotik ateraraziz.

Sentimenduz idazten duela bistan da. Idazle ondratua iruditu zait: “*Bat-batean desagertzen den min setatiaren antzera/ horrela abandonatuko nau bakardadeak/ zuek baino beranduago, zuek baino arinago*”. Dena dela, azken lerro horretan legez, galdut egiten da pasarte askotan dominatu ezinik hizkuntza, eta lehen aipatu dugun poesiaren bideetatik aparte arrotzua. Onartu behar dut deseroso sentitu naizela maiz, artifiziozkoak begitandu zaizkidala joko asko. Uste dut idazleak barruan gordetzen duen pulstua ez dela guztiz azaleratzen, maitasun idealizatuaren abusu bat dagoela, eta poema laburren esanahirik, adierazpenik eza, pisuegia egin zait. ■

Igor Estankona



Beltza eta umoretsua

CAMEMBERT HELBURU-TIK lanbasa baino gutxiago mugitu den Enekoitz Ramirez da *Zintzoen saldoan* nobelako protagonista. ETako kide ohia, preso izandakoa, arte sale-rosketan ibilia eta orain jatetxe-lapurra. Sukaldari garesti horietako baten diru kutxari hautsak nola kendu prestatu bitartean, sukaldaria hilko dute eta komisaldegian bukatuko du Ramirezek, oraingoan ezer egin ez duen arren. Hortik aurrera, fidantza ordainduko dion abokatu bat, hilketari bide ofiziosetatik ikertzeko eskaintza eta Ramirez gaiztagina beste bandokoentzat, zintzoentzat, lanean.

Pertsonaia bera den arren, 1998ko liburu hibrido hura baino konbentzionalagoa da azken hau, ekintzekin tartekatzen diren hainbat digresio gorabehera, bete-betean nobela beltzaren eremuan kokatzen da.

Protagonistak “zintzoen saldoa” osatzen dutenekin dauzkan elkarriketak kontraste komikoz beteak daude. Dialogo horien bizitasuna eta adierazkortasuna nobelaren puntu sendoenetakoa da eta protagonistaren izaera mamitzen laguntzen du: Alonsok konplexurik gabe sortu dio hanpa euskaldunari hitz egiteko erregistro oso bat. Hori bai, bitxia egiten da –tarteka sinesteko gogor samarra ere bai–, Ramirezek hainbat pasartetan erakusten duen erudizioa, ironiaren zerbitzura badago ere.


Difuminazio moduko bat ere bada: zintzoen eta gaiztoen arteko bereizketa-lerroa lausoa dela adierazten du, ustezko gaizkileak ustezko pertsona eredugarrien lohikeriaz harrizteraino. Eta horretarako “gure” famatu jatorrenak diren eliteko sukaldarien trapu zikinak erakusten ditu. Nola lortzen diren Michelin izarrak, zein den luxuzko jatetxeen negozio-eredua eta noraino irits daitekeen chef prestigiotsuen dibertsifikazio-estrategia, besteak beste.

Generoaren ezaugarriak ondo menperatzen ditu Alonsok; eta akaso amaiera aldean, Ramirez Mexikora doanean, apur bat desbideratzen bada ere, nota onarekin pasa du irakurle honen azterketa. Angulen eta arrautzikaren inguruko albisteak eguneroko aperitifak ditugun garai hauetarako plater gustagarria. ■



Gorka Bereziartua Mitxelena

Zintzoen saldoan
Jon Alonso
Txalaparta, 2012



Fitxa: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** José Miguel Pérez Sierra. Donostiako Orfeoia. **Zuzendaria:** José Antonio Sainz Alfaro. **Bakarlariak:** Carmen Romeu (sopranoa), Adriana di Paola (mezzoa), Shi Yijie (tenorea) eta Sávio Sperandio (baxua). **Egitaraua:** Arriaga, Respighi eta Rossiniren obrak. **Lekua:** Gasteizko Principal Antzokia. **Data:** martxoaren 7a.

Zaindua eta hunkigarria

EUSKADIKO ORKESTRAKO zazpigarren abonua kontzertua benetako harribitxia suertatu da. Egitaraua ikusita, saio atsegina espero genuen, baina kasu honetan atsegina izatetik harago joan zen kontzertua. Kontuan hartuta, gainera, Gasteizko Principal Antzokiaren deabruzko akustika.

Aste Santua gertu-gertu dugunez, programa aproposa proposatu zigun Orkestrak. Hasteko, Arriagaren *Stabat Mater*, op.23. Hamar minutuko lan labur honetan txukun aritu ziren, bai orkestra bai Donostiako Orfeoiko gizonetakoak. Baina, aldi honetan esan behar da txukuntasunean gelditu zirela. Saioaren hasiera zelako edo beste arrazoiren batengatik, emaitza hotza eta distirarik gabekoa izan zen. Pena. Baina kaskarkeriazko giroa erabat aldatu zen *Ottorino Respighi-ren Antiche danze ed arie. 3. Suite* obrarekin. Fraseo ederra eta leuntasuna nagusitu ziren. Zer interpretazio dotorea! Pérez Sierra zuzendariak jakin zuen orkestrarik onena ateratzeko, bai soinu aldetik baita adierazkortasunaren aldetik ere.

Benetako gozamena bigarren zatian iritsi zen. Rossiniren *Stabat Mater* lan ederra da, dudarik gabe, baina Euskadiko Orkestrak eta Donostiako Orfeoia egindako bertsioak espero genuena gainditu zuen. Abesbatzak soinu zaindua erakutsi zuen uneoro. Doi-doi hasierako *Introduzjone* zatian, eta boteretsua *Finale*-an. Bakarlariak ere taxuz aritu ziren. Shi Yijie tenore txinatarraren tinbre argitsuak konbentzitu egin zuen publikoa. Sávio



José Miguel Pérez Sierra zuzendaria bikain aritu zen Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren aurrean.

Sperandio baxuak interpretazio nabarmena egin zuen, batez ere *Eia Mater, fons Amoris* errezitati-boan. Carmen Romeu soprano valentziarrak sendotasuna agertu zuen; *Quis est homo* duetto-an distiraz aritu zen.

Eta, amaitzeko, Adriana di Paola mezzoa, nahiz eta zailtasun txiki batzuk izan *Fac, ut portem Christi mortem* cavatina-n, arazorik gabe bete zuen bere rola. ■

Montserrrat Auzmendi





KILO TERDI TXOKOA
Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Natura sentitu

KATIUSKA GORRIAK

JOSU BERGARA
kantautorearen disko berria

www.josubergara.net





BERTSOA.COM

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2013

Txapelketa baten geografia

XABIER SILVEIRAK Anaitasunan jantzi du txapela, pasa den larunbatean jokaturako Nafarroako Bertsolari Txapelketaren azken edizioan. Iruñeko kiroldegian erdietsi zuen lesakarrak zazpigarrena. Ez zen hura jokatu zen sari preziatu bakarra, Euskal Herrikoako lau txartel banatu baitziren 1.500 bertsozaleen aurrean.

Giro epela Hiri Buruzagian. Zumarragako lehengusuak ez du hutsik egin, bostak baino lehen harmailetan da, Julen Zelaietaz galdetu dit. Ezin du Nafarroako final bat irudikatu beratarren parte-hartzerik gabe. Bertso-saio batek umorea behar du dialektikan eta finala ez da horretan salbuespena. Zelaieta kantxan da, kazetarien artean, ez dira aspertuko Xorroxin irratiko entzuleak. 31 bertsolarik jardun dute aurtengo edizioan, eta horietatik gehienak peto gorritz jantzirik gora eta behera lanean ari dira saioa hasi aurretik.

LIZARRATIK IRUÑERA. Txapelketaren kronika laburra egin behar izan diot lehengusuari. Lizarran eman zitzaion hasiera aurtengo edizioari, zeresana eman zuen saioak, parte hartu zuten seiek hurrengo faserako txartela lortu zutelako eta horietatik hiru, Siveria, Lagoma eta Fernandez finalean direlako. Aldatz, Larraintzar, Ituren eta Zubirin jokatu ziren gainerako final-laurdenak.

Maila onekoak izan ziren Atarrabia eta Etxarri Aranazko final-aurreak, ezin gauza bera esan Elizondoko Lur aretoan jokatu zenaz, Zelaieta eta Elozegi finalerako hautagai ziren, baina Baztanen eten zuten txapelketako ibilbidea.

Argi naturala Anaitasunan, zortzi bertsolariak aldageletan dira, baina ez da bertsolaririk falta gure inguruan. Lehengusuak keinua egin dit ezkerraldera begira dezan. Gugandik hurbil, Lapurditik heldutako bi bertsolari, batak Eus-

kal Herriko finala ezagun du inoiz txapelketa honetan hartu parte, besteak BEC du an Goraxeago Durangaldeako kora la bat, eta bertan lau urtetik b Anonetan edota Barakaldon oh gainean ikusi ohi duguna.

MANOLOREN UZTA. Bittor Egoien gure eskuinetik pasatu ondoan Manolo Arozena du. toriari erreparatuz gero, bi h dira gaurko festaren erru nagusietakoak, nagusiak ez ba Bi txapeldun, bi irakasle. D hiru hamarkada Bortzirietan zenak hasitako bideari jarrait eman zion Baztan aldean B rrek. Gaur Elizagoienek e behar du txapela.

Saioa hastear da, harmaila kantxa jendez mukuru. Oh gainean Oskar Estanga (Gai Julio Soto (Gorriti), Eneko La (Etxarri-Aranatz), Erika Lag (Lesaka), Xabier Silveira (Les

Aimar Karrika (Auritz), Eneko Fernandez (Lesaka) eta Jon Barberena (Elizondo).

Iruñerriko ordezkariak ez, inoiz etorriko da hori ere, esan dit zuma-rragarrik. Duela bi urte Labriten jokatu zen finalarekin alderatuta aldaketa txikia baina esanguratsua, entzule gehiago eta horietako anitz Villavesaz edota oinez etorri dira.

Aimar Karrika ezezaguna da lehengusuarendako, auriztarraren ahots ederraz ohartarazi dit. Eneko Lazkoz duela bi urte Labriten ezagutu zuen, arrazoietan sendo etxarriarrak, lehengusuaren orduko epaia. Ez da jaio Oskar Estangak alaituko ez duen pertsonarik. Aurreko finaletan, Zelaieta eta Estanga han izanda, ez zen irri-rik falta, honetan, teoriar, Oskar-aren ardura da hori. Jon Barberenak kantatu du azken agurra, dotorezia elizondotarraren bertso-keran.

Gugandik aski hurbil, “Aupa Eneko” adituko dugu saio osoan, lesakarrak dira gure eskuinean ditugunak, bertsolariak eta Nafarroako final batean baino gehiagotan parte hartutakoak.

Ilunabarrean piztu da saioa, sei puntuko motzean ari dira Silveira eta Fernandez, sexu aferak direla eta terapia batera joan behar izan duen bikotea bi lesakarrena. Orain arteko bertsoaldirik hoberena begitandu zaio lehengusuari, eta asmatu du. Horrek eta kartzelan egindako lanak txapela emanen dio Xabierri eta txapelketa osoan zehar erregular eta finalean ausardiaz aritu den Eneko Fernandezek lan horiei esker eskuratu du Euskal Herrikoako txartela.

BURUZ BURUKORIK EZ. Amaitu da kartzela, kantxan, hamar metro eskasera epaimahaikoak puntu zenbaketan, “ez dago” irakurri dugu baten ezpainetan. Lehengusuak deblauki bota du: “Silveira”.

2009ko Lur Aretoan eta 2011ko Labriten ez bezalaxe, Anaitasunan ez da buruz burukorik jokatu. Lagun altsasuar baten mezua jaso dut, “Zer?” galderari erantzun behar eta “Ez da SSrik izanen” idatzi diot mezuan. Lagun hori izan zen, 2009ko Silveira eta Soto buruz burukoaren ondoren pozik esan zidana, hau behar genuela Nafarroako bertsolaritzan. Nafarroa Garaian zuzendu nion nik orduko hartan.

Ongi merezita irabazi du Xabierrek. Bi egun lehenago iragarria zuen, 2013ko Silveira batek txapela irabaz dezake, eta Anaitasunan Tigreak hamakaigarrenez frogatu du badakiela bertsoan. Silveira, Soto, Lagoma, Fernandez, Lazkoz, Barberena, Estanga eta Karrika. Lau txartel jokoan eta horietatik hiru Lesakara. Pozik izanen da Manolo, esan daiteke hiruak direla bere uztakoak eta Fernandezek laugarren postuak pasa den urtean egin zen Bardoak lehiaketa moldearen egokitasuna frogatu du, bertsolariak eta bertsozaleak arrunt kontent geratu ziren txapelketa horrekin.

Saioa amaitu da, bertsozaleak kantxako aulkiak jasotzen ari dira, festa hasi besterik ez da egin. Finala, Nafarroan, larunbatarekin egin behar omen da, 150 lagun elkartuko dira Iruñeko sagardotegi batean, festa ez da hor amaituko.

Afaldu aurretik txapeldun izandako batekin solastatu gara. Lehengusuak galdetu dio ez ote zen irekiegia kartzelako gaia, «Seinalea jaso duzu. Orain ez dago atzera bueltarik». Gutako inori egokituz gero, baietz burura ekarri pisu bat erosteko seinalea edota aizkora apustua onartzeko diruarena. Beste garai batekoak dira biak, bien artean mendea egin zuten aspaldi.

Bi ezuste. Bata ona, bestea auskalo ona edo txarra den. Erika Lagomak oso txapelketa ona egin du. Finalaurrekoan askok Sotoren pare ikusi zuten, ez alferrik Atarrabiakoarena txapelketa honetako saiorik hoberena izan da. Bigarren ezustea Sotok, hirugarren txapela ez erdiestea baino, buruz buruko- ra ez ailegatzea izan zen. Lehengusua klarki mintzo da, galtzeak on eginen dio. Euskal Herrikoan gaurkoan izan ez duen tentsioa berreskuratuko du. Argi da, Anaitasuna ez da Julio Sotoren plaza, duela lau urteko Txapelketa Nagusian kiroldegian galdu zuen finale- ra pasatzeko zuen aukera eta honetan aditu gehienek alde zaurretik eman zioten hirugarren txapela.

Afarian ziren gehienek, Nagusia baino, hurrengo urteko Bardoak lehiaketa zuten gogoan. Festa egunargiz amaitu zen, paga-ezina da lehengusua Zenborain (Untzitibar) herriko alkatearekin bertsoan entzutea. Zabala Nafarroa Garaiko bertsolaritzaren geografia, zabalduko den geografia. ■

Patxi Larrion



1 irakurri

2 hautatu

3 erabili

4 eman iritzia

GIB birusari aurre egin botiken laguntzarik gabe

JOAN DEN MENDEKO 80ko eta 90eko hamarkadetan izua sortu zuen gure artean GIB birusak. Garai horiek bizi genituenok ezagutzen dugu hiesak eramandako bateren bat. Birusak kutsatutako batzuek, berriz, zortea izan zuten, eta egun bizirik irauten dute medikuntzan egindako aurrerapenei esker.

Hieserako sendabiderik ez da aurkitu oraindik, baina urteak igaro ahala birusa hobeto ezagutzen dugu. Ikertalde frantziar batek *PLOS Pathogens* web bidezko aldizkarian argitara emandako artikuluan, hamalau pertsona heldu seropositibok birusa kontrolatzea lortu dutela adierazi dute. Ez dute “sendatu” hitza erabili nahi izan oraingoan. Hamalau pertsona horiei 2000. urtearen inguruan diagnostikatu zitzaizkien gaixotasuna, bai oso azkar detektatu ere, eta antza, horixe izan da gerora

“sendatu” ahal izatearen gakoa. Labur esanda, pertsona horien zelulek nahikoa indar dute GIB birusaren aurka borrokatzeko kanpoko laguntza edo botikarik gabe. ■



Kafe gehiago, heriotza gutxiago

AEBetako Onkologia Institutuko Neal Freedmanek eta haren hainbat lankidek hamabi urtez egindako ikerketa baten emaitza argitara eman dute. Diotenez, kafe kontsumoa handitzeak hilkortasuna murrizten du... eta ez dakite zergatik!

ttiki.com/48787
(Gaztelaniaz)

Papuasia Ginea Berriko irudi ikusgarriak

Munduaren jabe sentitzen gara askotan, baina zerbaiten jabe izateko zura omen den hori ezagutu behar duzu, eta ez ditugu inolaz ere munduan dauden espezie guztiak ezagutzen. Ondoko irudietan azken urteotan Papuasia aldean topatutako milaka espezieetako batzuk ikus ditzakegu.


ttiki.com/48788
(Frantsesez)

Facebooken lagun bat ezabatzeak uste baino ondorio gehiago du

Facebooken zure laguna ezabatzeko nahiko da botoi bat sakatzeari, baina ekintza simple horrek ondorio asko izan dezake bizitzan sozialean. Coloradoko Unibertsitateko (AEB) Christopher Sibona ikerlariak oso emaitza interesgarriak plazaratu ditu 582 pertsonaren erantzunak aztertu ondoren.

ttiki.com/48789
(Gaztelaniaz)

CDC / C. GOLDSMITH



GIB birusa.

Geotermiaren itzulera

KRISI GARAIK oso aproposak izaten dira baztertutako ideiei berriro heltzeko. Frantzia eta Alemania, esaterako, lurrazpiko ur beroen inguruko ikerketa bultzatzen ari dira. Helburua da 3.000 metroko sakoneran 150°C eta 200°C artean izan daitekeen ura aurkitzea. Ur hori lurrin modura ateratzen da kanpora, eta turbina bat higituz elektrizitatea sortzen du. Sistemak oso emaitza onak izan ditzake, batez ere zoru bolkanikoa duten lurretan. Horren adibide da Guadalupe irla; Soufrière sumendiaren berotasunari esker, irlan behar den energia elektrikoaren %10 lortzen da, aipatzen ari garen sistema erabilita.

Sistema hori energi iturri berriztagarrien artean kokatzen dute zenbait adituk. Adibide gisa, datu interesgarria plazaratu dute: hainbat urtez ustiatuta, harkaitz beroaren —bertako ura horregatik izaten da beroa— kilometro kubo batetik sortu daitekeen energia 1.275 milioi petrolio tonatik sortzen denaren baliokidea da, eta garbia gainera. ■



Soufrière sumendia.



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Txoramena

BLAUST! Bat-batean udaberrian naiz. Eguna ikaragarri luzatua da, elurte eta egundoko hotzaldien ondoren ilgorak izerdia bor-bor dakar, dakarkit, gora noski. Eta buruak zut! Gozo ibiliko da Zaki-lixut, kupel artean...

Sagardozaleoi kupelekoaren etorriak udaberri-
tzearen neurriaren berri ematen digun eran, makina bat metro bada. Bere burua, galanta hain zuzen, hain borobil, bere burua euskalduntasunaren erretoretzat zuen bizilagun batek udaberria sahatsak (*Salix* sp.) zekarrela zioen. Nire ustez lehen sahatsak loratu direnerako udaberriaren ufada nabarmenegia da, itsuenak ere ikusi du. Botanikariek, bere motxean luzexeago, pendiz ospelak lore laruz janzten dituen San Jose lore goiztiarrari (*Primula vulgaris*) eman zioten sasoierritzearen mugarrirtza; hortik *Primula* izena, latinez lehena den *primus* hitzaren txikigarri femeninoa. Antzeko tokietan baina eguzkizaleago, burua luzatuta, zurikatsak edo txilar zuriak (*Erica arborea*) nabarmen erakusten du bere burua loretza zurizko soinekoa burutik behera sartuta. Zurietan zuririk bada patxaranzaleena, horiek elorri beltzaren (*Prunus spinosa*) loraldian dakusate udaberria.

Horia nahi izaten dute beste batzuek. *Acacia dealbata*, mimosari askok aitortzen dio udalehen berriaren geretaren gakoa. Baina kanpotik ekarria

izaki, hango sasoiak erakusten dizkigu. Japoniako irasagarondoak (*Chaenomeles japonica*) eta Europa eta Asia arteko mugako ararondo hosto gorriak (*Prunus cerasifera*) ere nahiko lukete udaberriaren irteteko seinalea

Hagin arra lorez gainezka.

beretzat jotzea. Urrutiko lurralde hotzetatik datoz, ordea, eta hemengo paradisuko klimarekin txoratuta ibili ohi direnez ezin gure odola piztu.

Neurea oteak pizten du, ote zuriak (*Ulex europaeus*), idiaren bizkarra mantak bezala mendia loretza horiz izartzen, zerutzen duenean. Otea ote, ala hagina? *Taxus baccata*, hagina ere loratua da. Hagin arrak nabarmenago, milioika polen alez gure airea betez. Bai, haginak sasoi berria bizi duela ikusteak neu ere biziberritzen nau.

Lore eta kolore! Odol berritze ozenagoa ez al dakarte soinuek? Bor-bor. Antzarak lehen, kurrioloak segidan eta gero miruak iparrerako bueltako bidean garrasi builaka eta zalapartaka. Hori bai udaberria. ■



JAKOBA ERREKONDO



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Lehengoan, auzoko denda txikian ikusi nituen mizpira gozo batzuk salgai, Gasteizko erdialdean. Haren jatorriaz galdetu, eta Hixona herrikoak omen, lagun batek propio ekarriak. Bide batez, zure gurbe edo udalatx maiteen berri ere egin nion galdea Sagrario dendariari. Urtez urte Hixonako bertako herriar batek eramaten omen dizkio kaxakada batzuk... aurten arte, azken gurbe zuhaitzak kentzea erabaki baitu gizonak. Tamala, benetan. Eta orain galdera zuri: non geratzen zaizkigu azken gurbeak Euskal Herrian? Gipuzkoa-Bizkaietan ba al da alerik?

Burgosko Haza herri misterioetsuaren bidean aurkitutako gurbe bakartiaren argazkia erantsi dizut, para-
je gorri egokia azkenetan dirudien heroi honentzat.

Martin Rezola (Gasteiz)

Kaixo Martin. Nik ezagutzen ditudan gurbe bakarrak Arabar Errioxan bizi dira, mahasti artean... Hala ere, Euskal Herriko hego muturrean izango da besterik, erromatarrekin eta mairuekin izandako elkarbizitzaren lekuko. Ez Gipuzkoan ez Bizkaian ez dut bakar bat ere ezagutzen.



Gurbea (*Sorbus domestica*).

MARTIN REZOLA

Urretxuko VIII. lore eta landare azoka



Apirilak 14, igandea · 10:00-14:00
Gemikako Arbola plaza (Urretxu)

- Lore eta landareen erakusketa eta salmenta
- Lorezaintzako tresnak
- Tailerrak (doan): lore lehorrak eta landareak
- Ataungo talogileak

Eta giro ezin hobea

www.urretxu.net



5.000 urte eskrupulurik gabe hortzak garbitzen

NEWGATE (INGLATERRA), 1780. Hortzetako eskuila modernoa asmatu zuen William Addisek. Baina giza askoz lehenago hasi zen hortzak garbitzen, Historiaren seguruena; mamut haragi arrastoak hortz-hagin tartetan izatea ez zen batere atsegina izango.

Antzinako egiptoarrek hortzetako pasta nahiko sofistikatu erabiltzen zuten duela 5.000 urte: idi apatx erre eta xehea, mirra, arrautza azala eta apar harria nahastu zituzten garbigarria lortzeko. Ez dakigu osagai bakoitzaren zer kantitate erabiltzen zuten, baina bai hatzez edo makilatxo batez igurtzen zituztela hortz-haginak.

Erromatarrek produktua hobetu zuten. Substantzia urragarri gisa, hau da, janari arrastoak erauzten laguntzeko gai gisa, maskorrek ordezkatu zituzten egiptoarren idi apatxak. Gainera, nahasketari ardoa eta usain-belarrak eranstu hasi ziren, ahoa freskatzeko eta hats gaiztoaren aurka egiteko. Horrenbestez, hortzetako pastaren helburu higienikoa asebate ondoren, erromatarrek haratago joatea erabaki zuten, eta oreari propietate estetikoak gehitzea erabaki zuten.

Fullonica delakoetan (garbitegiak) erromatarrek gernua erabili ohi zuten, gernuaren amoniakoak arropa zuritzen laguntzen duelako. Beraz, hortzak ahalik eta zurien atxikitzen lagunduko zuela pentsatu zuten eta hortzetako pastari ere pixa erantsi zioten. Gaius Valerius Katulo (K.a. 87-54) poetari jaramon eginez gero, hortzak txizaz garbitzeko ohitura hura zabalduta zego-



Ezkerrean, William Addisek (1734-1808) sortutako enpresaren iragarkia. Alboan, enpresaren hortz eskuila zaharrenetako batzuk.

en Iberiar penintsulan: “(...) Zeltiberiar herrialdean, bakoitzak botatzen duen pixa hortzak eta oi gorriak garbitzeko erabiltzeko ohitura dute goizero eta horrek besterik gabe esan nahi du hortzak zenbat eta garbiagoak izan orduan eta pixa gehiago duzula barruan”.

Baina efektu urragarri eta zurigarridun pasta garesti hura noble aberatsenen esku bakarrik zegoen, eta herritar xeheek formula merkeagoak erabili behar zituzten: sagu burmuinak hautsetan, esate baterako.

Argi dago Antzinaroan hortzak garbi izan nahi zituenak eskrupuluak albo batera utzi behar zituela. Baina Aro Modernoa amaitzeaz zela eskrupuluak izan ziren, hain zuzen, hortzetako eskuila asmatzera eraman zutenak.

1870ean William Addis oihaltzailea Londresko Spitalfieldsen atxilotu zuten kale istiluak sortzeagatik, eta Newgateko espetxean sartu zuten. Garai hartan, trapezu edo oihaltzaile zati bat gatzetan edo beste substantzia batzuetan sartu eta haiekin igurtzi ohi zituzten hortz-haginak. Espetxeko trapezu zikinak ahoan sartzeak nazka ematen zionez, Addisek ordezkari higienikoa bilatu zuen. Afariko hezur bat gorde zuten, zulotxoak egin zituzten eta erositatearen guardia baten bidez zurdak eskuratu eta zuloetan lotu zituzten. Urte berean, kartzelatik irten zen eta hortz eskuila modernoak ekoizteko eta merkaturatzeko enpresa, oraindik ere jardunean ari den Addis enpresa, sortu zuen. ■



Arrastoak

Neruda hil ote zuten argitzen saiatuko dira



APRILAREN 8AN Pablo Nerudaren gorpuzkinak hoberik aterako dituzte, bigarren bez. Lehen aldia 1992an izan zen; poeta txiletarraren nahia betetzeko, Isla Negra ehortzeko, mugitu zuten gorpua. Oraingoan haren heriotza argitzeko aterako dituzte arrastoak. Bertsio ofizialaren arabera

Pablo Neruda (argazkian, Aleande presidentarekin) prostatako minbi-ziaren eraginez hil zen 1973ko irailaren 23an, Pinochet estatuko kolpetik egun gutxira. Nerudaren txoferraren eta Txileko Alderdi Komunistaren arabera, ordea, pozoituta hil zuten Pinochet enregimenaren aginduz. ■

«EAJ oso urruti ikusten dugu guregandik, oso urruti»

Gasteiz, 1973. Filologia erromanikoa ikasia. AEKn euskaldundua. EH Bilduko legebiltzarkidea da Gasteizen: “Antolakuntza politikoetan eroso sentitzen naiz. Ezker abertzalearen etxea ondo ezagutzen dut, Araban jardun baitut arlo horretan. Oraingo etxea dezente handiago da, baina nire burua trebatua ikusten dut oraingo ardura hartzeko” esan digu Sortuko lehen presidenteak.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



SORTUKO PRESIDENTEA izatea alderdia egokitze beharraren ondorioztat jotzen du Hasier Arraizek: “Nire izendapenak badu zerikusia alderdian idazkari nagusia izatearekin. Sortuko kideek egindako eskaera bati erantzuna gauzatu dugu. Proposamena polita da. Arnaldo Otegiren hutsunea larria da guretzat eta hori agerian utzi nahi izan dugu. Hori dela eta, idazkari nagusiaren ondoren presidentearen izendapena

egin da. Alderdiari neurria emateko modua da, besterik ez”.

EH Bilduk Eusko Legebiltzarrean *Parot* doktrina legez besteko proposamen bezala aurkeztu zuen egunaren biharamunean egina dago elkarriketa.

Arnaldo Otegiren bi aipu nabari ziren Sorturen azken kongresuan: “Kontsigna gutxiago eta argudio gehiago”. “Jabetzen al gara lan historiko

itzela dugula? Ala uste dugu ezberdintasuna dela borroka armatuaren desagerpena?”. Aipu zorrotzak.

Zorrotzak, bai. Sortuk zorrotz jokatu nahi du, hasteko bere buruarekin. Arnaldoren hitzak gustura hartu ditugu, oso zehatzak baitira. Zentzu horretan haxe esan genuen kongresuan: ezker abertzaleko kideak konfrontazio garaietatik gatoz, ohituta eta zailduta izan gara konfrontazioan. Egoera hori oso latza izan da,



“EAJren eta ezker abertzalearen arteko lehia ez da boterea lortzeko lehia, pentsamendu hegemonikoaren inguruko lehia baizik; ez da nor den Ajuria Enean maizter, hori euren kontua da, ez gurea”.

baina, seguruenik, politikoki jarduera errazagoa zen oraingoa baino. Oraingo egoera ez da hain gogorra, itxuraz edo neurri batean. Noski, orain ere sufrimendua badago, oso handia. Besteak beste, giltzapean dauden kideena, euren senideena. Egun gauzak politikoki konplexuagoak dira lehen baino, eta beste modu batez jokatzeko ikasi behar dugu. Arnaldok dioenez, iraganeko formulek ez dute orain balio. Hori ere horrela, gauza bat dago aintzat hartzekoa: ezker abertzaleak aldaketa estrategikoa oso denbora laburrean egin duela, aldaketa oso sakona da, eta aldaketa ez dago neurrian eginga oraindik.

“Guk ez dugu ikusten garai berri batean gaudenik” esan digute Eusko Ekintza alderdi berriko Santamaria eta Garmendia kideek orriotan.

Bada, guretzat ukalezina da garai berriari gaudela. Badaude hainbat faktore hori baieztatzen. Nagusia, ezker abertzalearen baitan eztabaia da estrategikoa egin izana. Horrek fase politiko berria ekarri du Euskal Herrira. Eragile politiko eta sozial gehienak ados gaude horretan.

“Aldaketa estrategikorako tresna” jarri duzue abian. Sakondu horretan.

Alegia, Euskal Herriari behar duen aldaketa politikoa gauzatu behar da gehiengo politiko zabalak eraikitzen. Horrek berez aldaketa ugari eragin du. Hori da abiapuntu nagusia.

Sortuk ez duela autokritikarik egin modu sakonean, diote batzuek.

Autokritika ez da inoiz amaitu behar, berezko ariketa izan behar du. Landu beharreko jarrera da, etengabe. Baina, kontua ez da kritika gutxi edo asko egitea une batean. Gainera, esango nuke, eragile politiko nagusien artean, autokritikarik sakonena eta serioena egin duen indar bakarra ezker abertzalea dela. Gustatuko litzaidake gainerako eragileek gu egiten ari garen autokritika egitea.

Aldaketarako bidean, nola baloratzen duzue desobedientzia politikoaren aukera?

Konfrontazio prozesu horretan, abangoardiak ez du instituzioetan egon behar, kalean baizik, eragile sozialen ondoan. Herriarrek prozesuaren abangoardia izan behar dute, eta beraiei bultzadaz, datozen mugimenduekin guk geuk lan politikoa eraman behar dugu instituzioetara. Beraz, guk prest egon behar

“Ezker abertzaleak aldaketa estrategikoa oso denbora laburrean egin du, aldaketa oso sakona da, eta aldaketa ez dago neurrian eginga oraindik”

dugu gobernatzen ari garen tokietan, herritik datozen eskaerei eta beharrei erantzuteko, eta desobedientzia bidezko politika egin behar bada, egin ere. Ez dugu horretarako beldurrik izan behar. Gure partetik ez da jarrera epelik izango. Hala ere, argitu aldera, prozesu eta askapen mugimenduaren epizentroa ezin da instituzioetan kokatu, ezin da planteatu desobedientzia instituzioetatik abiatzea. Lana kalean abiatu behar da eta gero erakundeetan osatu.

Arlo sozialean, lan esparruari dagokionean, nola moldatzen zarete, esaterako, ELAekin?

Une honetan ez gara ondo moldatzen, ELAren jarrera eta gurea dira horren adibide. Hala ere, ELA ezkerreko sindikatua da, abertzalea. Bere esparru politikoa aski argi dago zein den, badaki non dagoen EAJ, non PSE-PSN edota UPN-PP. Hau da, esparru politiko horretan ezkerrekoa eta abertzalea den eragile bakarra egun EH Bildu da, eta ELA, zabaltzen ari den esparru horretan dago. Guk ELAri aliantza zabala egitea proposatu diogu, herriarrek bloke independentistaren ildoa, elkarrenganako autonomia errespetatuz. Aldaketa politiko eta sozialera eraman behar gaituen esparru hori elkarrekin eraikitzeko aliantza nahi dugu.

Aliantza egitea zaila da. Zergatik?

Guk esan dezakeguna hau da: ELA aitzaki bila ari da proposamen eta aukera hori kontuan ez hartzeko. Ez du elkarlanerako gure gonbidapena aintzat hartu.

Lidergo kontua al da?

ELAko eragile guztiak berdinean edo berdintsuak gaitzen diote, ELAren diskurtsoa ildo horretan dago. Baina argi dago, hori ez da egia. Gogoz kontra ari direla ematen du. ELA ikusi behar du noiz egingo duen aukera hori, baina lehenago edo beranduago egin beharko du. Sorturen eskaintza elkarlana da, bloke independentista eratzeke, Euskal Herria emantzipatzeko, eremu nazionala nahiz soziala askapen bidean jartzeko. Bloke horrek motorra izan behar duelakoan gaude gu.

Bestalde, EH Bilduk 197/2006 doktrina eraman du Eusko Legebiltzarrera, lege besteko proposamen moduan. Zer balorazio egin duzue emaitzaz?

Positiboa izan da, eta agian, beste elkarlan batzuetarako abiapuntua izan daiteke. Agian. Dena den, zoritxarrez EAJ guregandik oso urrun sentitzen dugu, beste garai batzuetan EAJk zituen posizio politikoetatik oso urrun. EAJ gehiago ari da PP edo beste eragile batzuei begira, Euskal Herriaren interesei begira baino. Hori esanda ere, *Parot* doktrinari buruz garbi utzi zuen Ines del Rio presoari egindakoarekin ez dagoela ados. *Parot* doktrina indarrean egotea guztiz bidegabea da.

Bake ponentziari buruzko lehen debatea ere egin zen. Zer moduz?

Legebiltzarra bakeaz jarduteko foroetako bat da, baina ez bakarra. Euskal Herriko PP Madrilgo PPk baldintzatuta dago oso. Madrilgo Gobernuak lotuta dauka euskal alderdi popularra. Nire ikuspegitik, ziur aski, hemengo PPko kideek beste modu batez jokatuko lukete. Bestelako mezu bat helaraziko lukete, baina ezin dute, ez diete uzten. Estatuaren jarrera erabat itxia da gatazka konpontzeko, eta beraiek alderdi diziplinari eutsi behar diote.

Debateak zalaparta izugarria eragin zuen osoko bilkuran.

PPko kideak oso jarrera zehatzarekin joan ziren bilkurara. Beraien helburua bake ponentzia eratzeko lan taldea galaraztea izan zen, ez baitakite nola justifikatu bertan ez egotea. Egon nahi dute, baina ez diete uzten EH Bildu dagoelako. Madrilen hori "saltzea" oso zaila delako. Euskal PPk zailtasunak ditu. Horiek horrela, EAJ eta PSE saiatu dira PPri erraztasun guztiak ematen, eta, hala ere, ez dute lortu PP bertan egotea. Artean, bitartekaritzarako gune hori, sentisibilitate guztiak bildu behar dituen, ez dago eratua. Foroaren baliagarritasuna

na ukituta geratu da. Baina, ez da EH Bilduren erruarengatik inondik ere, hasieratik EH Bilduk prestutasuna erakutsi baitu parte hartzeko.

Aurreko legealditik datozen trabak ere badaude, hortaz.

Ponentzia hori bazterketa jarra batean oinarrituta dago, aurreko legealdian abiatutako ekimena baita. EH Bildukoak 21 biltzarkide gara. Legebiltzarreko 75 eserlekutik 21 betetzen ditugu guk. Aurreko legealdiko ordezkariak hartutako erabakiak oinarri dituen ponentzia da, gu ez geundenean erabaki zen foroa eratu nahi dute orain.

Iraganeko terminologia erabiltzea aurpegiratu dizuete beste alderdiek. Gatazka militarren erregistroetan segitzea.

Ika-mikaren sorburua horrela interpretatu zuten nonbait. Guk, aldiz, agertu nahi izan genuen bakarra izan zen, gatazkaren izaera politikoa dela. Argi eta garbi. Gu horretatik ez gara mugituko. Batzuei zein bestei gustatu edo ez, hori da gure ikuspegia, Euskal Herriko jendarte zabalaren ikuspegia ere badena. Guk EAJk ikuspegi hori ote daukan jakin nahi dugu. EAJk egun sinatuko al luke Lizarra-Garaziko Akordioaren lehen esaldia? Hau da, gurea izaera politikoa duen gatazka historikoa dela dioena.

Laura Mintegik Fernando Buesa arrazoi politikoengatik hil zutela esateak hautsak harrotu zituen.

Guk errespetutik esaten dugu hori. Santi Brouard ere arrazoi politikoengatik hil zutela pentsatzen baitugu. Kontrakoa pentsatzea sekulako nahastea litzateke. Horrela ez bazen, bi kasuetan, zergatik izan zen? Horretan datza arazoa. Ez da hilketa justifikatzea, ulertua izatea baizik.

Amnistia onartu beharko al du Espainiako Estatuak?

Nik totem bihurtzen diren hitzetatik alde egin nahi dut. Inportantea orain presoei eta iheslari

VITORIA
GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!

*Gonbit-txartelak astebete lehenago

JUDIMENDI

> 11 kantatzeko
Ipuinak bertsoan
Apirilak 10, 18:00

IBAIONDO

> Zertan bihurtuko naiz ordubetez?
Lantegia
Apirila 13, 18:00 (6-10 urte)

IPARRALDE

> Besarkaden liburua
Ipuin kontalaria
Apirilak 15, 18:00 (2-3 urte)

ALDABE

> Magurdi liburuaren zaindaria
Begara antzerkia
Apirilak 22, 18:00 (3-7 urte)

ARANA

> Ipuirrazkiak-Marrazpuinak
Apirilak 23, 18:00 (3-8 urte) eta
18:45 (9-14 urte)

ARIZNABARRA

> Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako
Ipuin kontalaria
Apirilak 24, 18:00 (6-8 urte)

PILAR

> Existitzen da nobela grafikoa?
Harkaitz Cano
Apirilak 25, 19:00. Helduentzat

LIBURU EGUNA

> Shakti Olaizola: Irakurtzen
Andre Maria Zuriaren plaza, 13:00

PRINCIPAL ANTZOKIA

> Komunikazioa, inkomunikazioa
Apirilak 12, 20:30

MUSIKA

> IGNACIO ALDECOA KULTUR ETXEA
Bikote Bat. Jabier Muguruza
Apirilak 11, 19:00

PARRAL TABERNA

Eskean Kristo: apirilak 9, 20:30
Rafa Rueda: apirilak 16, 20:30
Bronze: apirilak 23, 20:30

JIMMY JAZZ

Itziarren Semeak + Iheskide + Sermond
Apirilak 27, 20:00

Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udaia

irtenbide integrala ematea da, nahiz eta irtenbide integral horren gauza-pena mailakatua edota pertsonalizatua izan. Logikoena da pentsatzea gatazka hau ez dela amaituko preso eta iheslari guztiak etxean egon arte. Posible al da horiek horrela izanda gatazka amaitzea? Arrazoiak politikoak direla onartu behar dituzte alde guztiek. Ulertzen dut alde bakoitzak bere iritzia izatea, baina arrazoi politikoak saihestezinak dira.

EAJk aurkeztutako aurrekontuez zer balorazioa egin duzue?

Aurrekontu hauek onartezinak dira abiapuntuan. Murrizketak ekartzen dituelako, eta gainera, beste erremediorik ez balego bezala aurkeztu dituztelako, eta ez da egia. Aurrekontu hauek aukera politiko ideologiko zehatz bati erantzuten diote: errezeta neoliberalen bidezko politika egin nahi dutenei. Errezeta horiek Madrigo Gobernuaren aginduz iritsi dira Euskal Herrira, eta Urkulluren Gobernuak handik datorren guztia hemen aplikatzea erabaki du. Ez dagoela dirurik diote, baina dirua egon badago. Bi bide daude dirua lortzeko, bat zerga politika aldatzea. EAJk ez du aldatu nahi, gehien dutenen dirua ukitu nahi ez duelako. Badago beste bide bat: zorpetzea. Zorpetzeko tarte egon badago, baina ez daukate borondate politikorik.

Zergatik jarrera hori?

Jarrera horrek Madrilekin konfrontazio egoerara eraman gaitzakeelako. Madrilek horri ihes egin nahi dio. Hori dela eta EAJk erabaki du, soldatapekook gehien ordaindu

behar dugula, herritar langileok gara gerrikoa gehien estutu behar dugunak, horrek guztiak eskubide laboralen eta sozialen galera ekarriko duen arren.

“EAJk egun sinatuko al luke Lizarra-Garaziko Akordioaren lehen esaldia? Gurea izaera politikoa duen gatazka historikoa dela dioena”

Zuek zer eskatu diozue EAJri alternatiba bezala? PSErekin bat egin dezaitezue punturen batean?

EAJri aurrekontu proiektu hori erretiratzea eskatu diogu, benetako elkarriketari ekin ahal izateko, EH Bilduren babesa nahi baldin badu behintzat. Bestaldekik, PSEk bere erabakiak hartu beharko ditu, beraiek jakingo dute zer egin beharko duten, beren posizioa anbigua da inolaz ere. Literalki bat egiten dute gurekin, ezkerrekin lerratzen dira, baina akordioak egiterakoan bat egiten dute EAJrekin. Guk argi eta garbi dugu non daukagun gure aliatu nagusia. Gizartea da, eta bertan ari diren eragile sindikalak eta sozialak. Horiek argi utzi digute guk zer egitea nahi duten, beraz, guk euren beharrei erantzun behar diegu.

EAJ eta ezker abertzalea, lekutan daude elkarrengandik.

EAJri nahiz guri, leporatzen digute gurea arteko lehia dela nagusi, ez dugula elkarlanerako prestutasunik.

Egia da, garai politiko berri honetan errazagoa izan beharko luke elkarren arteko lana egitea. Lizarra-Garazi garaian hori posible izan bazen, ETaren jarduera armatua behin behinean etenda zegoenean, gaur egun, behin betiko egonda, guri ulergaitza egiten zaigu ados ez jartzea. Zenbait gaitetan behintzat, bi indarrok abertzaleak garen neurrian, batu behar gaituzten kontuetan hurbilago egon beharko genuke. Nazio eraikuntzaz eta erabaki eskubideaz ari naiz. Guk EAJrekin eremu batean zein bestean akordioa eta elkarlana bilatu ditugu, baina, EAJ oso urruti ikusten dugu guregandik, oso urruti.

Katalunian posible dena, hemen ez.

Agian, CiUko ordezkartza ia ERCkoaren doblea delako. Horrek ziur aski errazten du hango abertzaleak elkarrekin aritzea. Hemen, aldiz, Gasteizko Legebiltzarrean EAJk sei eserleku gehiago dauzka guk baino, eta horrek izua sentiarazten dio. Sorturen ustez, EAJren eta ezker abertzalearen artean dagoen lehia ez da boterea lortzeko lehia, pentsamendu hegemonikoaren inguruko lehia baizik. EAJk daukagunari eutsi behar zaiola dio, eta horiei eusteko batzea eskatzen digu gai-nontzekooi. Guk aldiz diogu, daukagunak ez duela herri honek dituen erronkei aurre egiteko balio. Burujabetza bidean indarrak biltzea proposatzen dugu. Hori da uneon bi pentsamenduen arteko lehia, ez hainbeste nor den Ajuria Enean maizter, hori euren kontua da, ez gurea. ■



Euskaltzaindia Sarako XXX. Idazleen Biltzarrean

apirilaren 1ean, astelehenean

Aurkezpena:

ANTOINE D'ABBADIE, ABBADIAZ
 Egilea: Jean-Louis Davant
GAINERATEKOEN BILDUMA
 Egilea: Gratien Adema "Zaldubi"
 Paratzailea: Henri Duhau
JON MIRANDE, OLERKARIA
 Jon Mirande poète parisien
 Egilea: Txomin Peillen Karrikaburu

Armak isiltzea erabaki du PKK-k

Borroka armatua amaitutzat jo du PKK Kurdistango Langileen Alderdiak, eta aro berri baten hasiera aldarrikatu du. Milioi bat lagun baino gehiago bildu ziren iragarpena egiteko antolatu zuten ekitaldian.

| LANDER ARBELAITZ MITXELENA |

GATAZKA ARMATUTIK gatazka politikora igarotzeko unea dela adierazi du Abdullah Öcalan lider kurduak. Espetxeratuta dagoen PKK-ko buruzagiaren gutuna irakurri zuten martxoaren 21ean BDP alderdiko bi kidek, Newroz, Kurdistango aberri eguna baliatuz. Estaturik gabeko nazio horren historiaren norabidea alda dezakeen berria da.

“Armak albo batera utzi eta ideiak hizketan jartzeko unea da, gure indar armatuak [Turkiako] mugetatik ateratzeko unea. Gure bizitzetako hamarkadak sakrifikatu ditugu, baina pozik besterik ezin dugu egon, ez da alperrik izan. Kurduak existitzen ez ginelako zioen paradigma goitik behera erori da eta nortasuna indartu dugu. Hau hasiera da, ez amaiera”.

Öcalanek gutunean adierazi du beren borroka ez zela jendearen aurka, errepresioaren eta injustizien aurka baizik. Egun politika egiteko moduan daudela dio eta gutxiengo etnikoen berdintasuna aldarrikatu du. Herri guztien artean berdintasuna lortzera dei egin du: kurduak, turkiarrak, arabiarak, armeniarak, turkomoanoak, pertsiarrak...

Negoiazio prozesua

PKK eta Turkiako Gobernuaren negoziazio prozesu batean murgilduta daude. Joan den irailean milaka preso kurduak gose grebari ekin zioten hainbat baldintza eskatuz: hainbat hizkuntza eskubide eta Öcalanentzat espetxe baldintza hobeak. Egoera muturrera heltzen ari zenean, Öcalanek berak protesta amaitzeko eskatu zuen, eta handik gutxira, Ankarak



Milioi bat lagun bildu ziren Newroz egunean Öcalan-en mezua entzuteko.

jakinarazi zuen elkarrizketa prozesu bat abiatu zutela inteligentzia zerbitzuek Öcalanekin.

Ordutik aurrera, bi aldeetan mugimenduak izan dira, eta adibidez, urtarrilean Öcalan bisitatzen utzi zieten BDP alderdiko bi ordezkariak, baita epaiketetan kurduen hizkuntza erabiltzea ere. Ondoren, baina, hiru ekintzaile kurdu hil zituzten Parisen operazio ilun

batean eta egoera nahaspilatu egin zen. Martxoaren 13an ordea, PKK-k bahituta zituen zortzi turkiar askatu zituen, bake elkarrizketak bultzatu asmoz.

1984an PKK-k armak hartzea erabaki zuenetik, 45.000 pertsona hil dira eta milaka preso kurdu daude egun kartzela turkiarretan giltzapetuta. ■



«Langilea gaztelaniaz badator, gero ezin dira 200 lankideren hizkuntza ohiturak aldatu»

Antzuolako Elay enpresan Metrologia arduraduna da Anaje Narbaiza. Autoetako piezak egiten dituzte.

Elkarrizketa ez diogu autoetako piezez egin. Elay enpresak 1992an euskara plana abiatu zuen, lan munduko lehenengo esperientzia izan zen hura.

| ONINTZA

IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco

ANAJE NARBAIZA bergararrak 33 urte daramatza Antzuolako (Gipuzkoa) Elay enpresan. Lana euskaraz egin nahi zutela erabaki zuten hartan, tartean zen Narbaiza. Gaur egun, lantegiko euskara planaren idazkaria da. 200dik gora langile dira eta ia denak, gutxi-asko, euskaraz moldatzen dira, “guk helburu garbi bat ipini genuen: euskaraz egingo genuen lan”.

Zuen bezeroak ez dira euskaldunak, ez daukazue euskararen beharrik saltzeko. Alabaina, lehenak izan zineten euskara plana abiatzen.

Langileen %65 euskalduna zen, horietako batzuk, ez nuke esango elebakarrak zirenik, baina elebakartasunetik gertu zeuden. Gu ginen geure bezero. Inork ezarritako hizkuntza geneukan ardatz eta aldatzea pentsatu genuen. Uste genuen gau-



“Guk piezak esportatzen ditugu. Esportatzeko ingelesa, frantsesa eta beste behar ditugu. Euskara bizitzeko, lanerako nahi dugu”.

zak hobeto baloratuko genituela baldin eta gure hizkuntza erabiltzen baguenen. 1987. urtea zen.

Nork bideratu zuen prozesua?

Beti izan da proiektu kolektiboa. Masa sozialean zabaldu zen ea horrelako gauza batek aurrera egiteko biderik izango zuen. Langile batzordean zeuden sindikatu guztiek baiezkota eman zioten. Hortxe ipini zen planaren lehen zutarria, bidea nolakoa izango zen oso ondo jakiteke.

Enpresako jabeak eta zuzendari-tzak ere ontzat hartu zuten, jakinda inbertsioak eta gastuak izango zirela. Ausartak izan ziren Jose Luis Elkoro eta Santi Zabaleta, eurak ahalbidetu zuten euskara plana. Ez zen planteamendu filosofiko bat izan, langileek eta nagusiek adostu-tako egitasmoa baizik.

Hasierako nahi hori euskara plan bihurtu zen.

Jaurlaritzara jo genuen. Ez zegoen gauza handirik, baina orokorrean zerbait egiteko gogoia bai. Euskara-ren Aholku Batzordeko kidea zen Andoni Sagarnarekin egon ginen, eta esperientzia pilotu moduan onartzea planteatu zuen. Orduko Jaurlaritzan zegoen taldearen lagun-tza jaso genuen eta 1991n Elhuyar-reko Tere Barrenetxeak eta Maria Jesus Jauregik Elayko bideragarritasun plana burutu zuten. Abenduan, batzarretan langileen %95ak onartu zuen plana, eta 1992ko otsailean abiatu genuen Agurtzane Loidi tek-nikariaren laguntzaz.

Euskara barnerako nahi zenuten, ez esportatzeko.

Guk piezak esportatzen ditugu. Esportatzeko ingelesa, frantsesa eta beste behar ditugu. Euskara bizitze-ko, lanerako nahi dugu. Garai har-tan ere, bi hizkuntza ofizial zeuden, baina gero hori ez zen ikusten. Euskaraz aritzea egi bihurtzen hasi ginen, pentsatuta euskaldunek zein erdaldunek elkarrekin bizi ahal iza-teko, biek hizkuntza biak ikasi behar genituela.

Bezeroari begira balio erantsia al da?

Hona etortzen diren bezeroek, hemengo jira ikusten dutenean, oso

modu naturalean onartzen dute lan-tegia euskaraz bizi dela. Sasoi batean beldurra izaten zen. Kartel elebiduna ipintzen genuen eta langi-leak deseroso, “bezeroek zer esan-go dutel”. Ikusi dugu naturaltasuna dela armarik onena. Hasieran ez zen oso naturala guretzat, baina gauzak aldatuz joan dira, eta orain inork ez du zalantzan ipintzen Elayn euskara dela bertako hizkun-tza. Inongo harrokeriarik gabe, baina zerbait desberdina egiteko gauza izan garenaren poza transmi-titzen diegu, hori ere balio erantsia da.

“Euskara ikastera joan zara eta kito? Ez, ez, ikasitakoa erabiltzeko aukerak eman behar zaizkio, e-postak euskaraz bidali...”

Euskara etxerako, atzerriko ingele-sa, frantsesa, alemana, txinera... Hizkuntza kudeaketa landu behar.

Euskara planak izan dituen baliabi-deak birmoldatzea pentsatzen ari gara. Euskara etxean normalduta dago, eta orain kanpora irteten garenean euskarak zein egiteko duen pentsatu behar dugu. Langi-leak kanpora idatzi behar duenean dena ingelesez egin behar al du ala nolabait gure hizkuntzaren berri eman behar du? Zein da hizkuntzen arteko oreka?

Euskara kanpora begira...

... baina zentzu horretan. Bezeroak ikusi behar du bere hizkuntzan ari-tzeko prest gaudela, baina guk beste hizkuntza batean oinarritzen dugula

“Aitortzen dizut fiskal lana egin dugula, erdaraz ari direnei atentzioa deitu diegula. Batzuk ondo erreakzionatzen dute eta beste batzuek gaizki”

gure lana eta gure izatea. Adibidez, noizbait bezeroarentzat bideoak egiten baditugu ikusi beharko da nola txertatzen den bertakoa kan-poko hizkuntzetan.

Etxekora etorrira, lantegian euskara erabiltzeko ardatz garrantzitsu duzue exijentzia.

Ezin dugu inor euskara ikastera bidali, gero erabiltzeko eskatzen ez baldin badiogu. Hori mozoloarena egitea litzateke. Norbait ikastera badoa izango da gero lanean erabil-tzeko. Batzuetan esan izan digute: zuek inposatu egiten duzue. Guk exijitu egiten dugu. Diferentzia da lanean euskaraz egiteko eskatuko zaiola. Ikastera doanak ondo ikus-ten du inor atzean edukitzea, jarrai-pena dagoelako eta motibatuta sen-titzen da. Euskara ikastera joan zara eta kito? Ez, ez, ikasitakoa erabil-tzeko aukerak eman behar zaizkio, e-postak euskaraz bidali, lan bonoa euskaraz bete... Dinamizatzeko modu bat da, ez dugu ezer berezirik egiten, ez dugu afaririk antolatzen. Motibazioa lana bera euskaraz egi-tea da.

Langileak hala sentitzen al du?

Ez dut uste inor geldituko zenik esanez, “ikastera joan nintzen eta inork kasurik ere ez dit egin”. Ika-setik etorritakoan, euskaraz mintza-tzeko lagunak izan ditu inguruan beti.

Gaizki ere egin ditugu gauza batzuk. Aitortzen dizut fiskal lana egin dugula, erdaraz ari direnei atentzioa deitu diegula. Batzuek ondo erreakzionatzen dute eta beste batzuek gaizki. Azken horiek barrera altxatzen dute, eta hori ez da ona. Ahal dela bide hori ez da erabili behar. Guk erabili dugu eta hanka sartu dugu.

Zein da zuen hizkuntza politika kon-tratazioetan?

Ahal dela euskalduna izan dadila. Euskalduna ez bada lehenengo-lehenengo ikastera. Adibidez, uler-tzeko bai baina hitz egiteko gai ez den langilea hilabete batez ikasten aritzen da, eta hona euskara ahoan duela etortzen da, gerora maila lan-tokian hobetzeko. Inportantea da, langile berria lehenengo harrema-

Beste enpresen ebaluatzaile

Bikain ziurtagiriko ebaluatzailea zara. Ziurtagiria lortzeko aurkezten diren enpresak aztertu dituzu. Zer aurkitu duzu?

Geroz eta enpresa gehiagok ekin dio sistematizazioari, baina oraindik ere borondatean oinarritutako proiektuak dira, “euskaraz nahi duteneko egingo dute”. Borondatearena hasierarako ondo dago, baina ondoren lana euskaraz egiteko sistematizazioak eta definizio garbiak prozesuak bideratzen laguntzen dute. Uste dut euskaraz bakarrik ari-tzeak beldurra eragiten duela, demokrazia, inposaketa... eta horrelako gauzak datozkigu burura. Eta ez da inposaketa, hizkuntza baten jabe egitea eta erabilgarri izatea oparia da.

Enpresa bakoitzak bere erritmoa duela esan izan duzu.

Beti sinestu dut enpresa bakoitzak bere mikroklima daukala, erritmoak diferentek dira eta errespetuz jokatu behar da. Ez da horren garrantzitsua hartzen den abiada, atzerapausoak eman gabe aurrera joatea baizik.

Beldurrak uxatzeko daude.

Beti izan naiz gauzak modu positiboan ikustearen aldekoa. Lehen ez geneukan ezer, orain badaukagu zerbait. Egin ahal da, samurra da, baina euskarak sortzen dituen beldur horiek kendu behar ditugu burutik. Adibidez, atzeritarra datorrean denok ingelesez egitea normalizat hartzen da, euskaraz berba bat ere ez. Beharbada lehen gaztelaniak ekarritakoa, orain ia-ia ingelesak dakar. Dena den, beldurrak uxatzeko ez dago gauza ederragorik ezkutan eduki duguna eta gurea dena naturaltasunez erakustea baino. Inork ezin du pentsatu gauzak euskaraz egiten ditugunean, erdaraz egiten ditugunean baino gutxiago balio dutenik.

netan euskaraz egiteko gai izatea, zeren gaztelaniaz badator, gero ezin dira 200dik gora lankideren hizkuntza ohiturak aldatu.

Beraz, lanean hasterako gutxienekoa jakin behar dute.

Denek ulertu, eta batzuek gehiago jakin behar dute daukaten lanpostuagatik. Gaur egun, Elayn lau lagun baino ez daude euskaraz ulertzen ez dutenak; eta bost gor. Dena dela, berba egiteko zailtasunak jende gehiagok dauzka.

Aldahitz ikerketako ondorioetako bat ondokoa izan zen: gaztelaniatik euskarara jauzi egiteko lankide baten laguntza ezinbestekoa izan dute.

Gurean orokorrago egiten saiatu gara, pertsona bati erantzukizun hain handia eman gabe. Ikasteko eta erabiltzeko premia daukanaren inguruan, nolabait taldea osatu dugu kontzienteki, eta taldeak eragiten du. Zeren kurioa da, pertsona batzuek batzuekin euskaraz egiten dute eta beste batzuekin ez. Guk taldera jo dugu, nahiz eta seguru nagoen zuk esandakoa bete dela, hau da, nahiz eta taldea ipini, goxoen sentitzen diren pertsonarengana joko zuten instintiboki.

“Lana egiteko bai, adibidez, ‘euskaraz idatziko ditut e-postak’, baina Jose Luisekin elkartzen naizenean erdaraz egiten dut kuadrillan erdaraz egiten dugulako”

Ikerketako beste ondorio bat zen euskaraz hasteko inflexio puntua zegoela. Langileak zioen: “Gaurtik aurrera euskaraz”.

Oraindik badaukagu beste eskailera maila bat. Antzuolan euskaraz egitea guztiz naturala da, baina Bergaran [alboko herrian] ez horrenbeste. Bergarako langileak datozkigu, batzuk erdaraz egiteko ohitura dutenak eta kuadrilla berekoak direnak. Kaleko ohiturak dakartzate eta hemengo giroa ez da gauza dena

neutralizatzen. Inflexio puntua, ez da “gaurtik aurrera euskaraz”. Lana egiteko bai, adibidez, “euskaraz idatziko ditut e-postak”, eta inork ez du zalantzan ipintzen bilerak euskaraz egin behar denik, baina Jose Luisekin elkartzen naizenean erdaraz egiten dut, kuadrillan [kanpoan] erdaraz egiten dugulako. Kanpotik dakarten hizkuntza ohitura aldatzea nekeza da.

“Euskara etxean normalduta dago, eta orain kanpora irteten garenean euskarak zein egiteko duen pentsatu behar dugu”

Euskara planaren hasiera inflexio puntu modukoa izan zen ordea, ezta?

Honek erdaraz funtzionatzen zuen eta euskaldunak lanean euskaraz ipini genituen, “gaurtik aurrera hau euskaraz entregatu”, “nik ez dakit”, “zelan ez dakizula? besterik ez dakizu eta!”. Eurak buruan zeukaten hizkuntza paperera eramatea izan zen erronka handia, nahiz eta ez izan, ez euskara batua, ez zaindua, ez landua... baina ulertzen zen. Hor bai izan zen “gaurtik aurrera”, baina gero badago harremanen munduan zati bat horrekin konpontzen ez dena.

Gaztelaniaz hasitako harremana euskarara pasatzea zail ikusten duzu. Kanpoko ohiturek irentsi egiten dute?

Irentsi, bai. Hala ere, langileak [kuadrillakoei gaztelaniaz egiten duenak] beste gauza asko lortzen ditu, hizkuntza ohitura berriak hartzen ditu eta ez dauka problemarik langile berriekin euskaraz egiteko, nahiz eta kaleko hizkuntza joerak baldintzatzen duen.

Langile horrek erabaki irmoa hartu behar.

Egoera horri buelta emateko bai. Beste kontu bat da harreman horretan zeinek agintzen duen, gaztelaniaz egiteko ohitura duenak ala hizkuntza aldatu nahi duenak.



“Uste dut euskaraz bakarrik aritzeak beldurra eragiten duela, demokrazia, inposaketa... eta horrelako gauzak datoz burura. Eta ez da inposaketa, hizkuntza baten jabe egitea eta erabilgarri izatea oparia da”. Argazkian Elayko hainbat langile.

Psikologia munduan sartuko ginateke. Hor sortzen direnak bitxiak dira benetan.

Botikan moduan, denetarik dago: zuk deskribatutako modukoak, ‘txik’ egin eta kanpoko eta barruko hizkuntza ohiturak aldatu dituztenak; hizkuntza ohiturak hemen bakarrik aldatu dituztenak; eta nahasian dabilizanak, hau da, langile berriei euskaraz egiten dietenak eta zaharrekin gaztelaniaz egiten dutenak. Oso kuriozoso da.

Betiko lankidearekin ezin hizkuntza aldatu.

Eta berriarekin inolako problemarik ez, erdaraz egin behar duenik ere ez. Horregatik daukagun neurrietako

bat da sartzen denak euskararen maila oinarritzokoa izatea. Harremana euskaraz sortzen denean hizkuntza ohitura sortzen da.

“Euskaldun aurpegia” izan behar du langile berriak.

Langile berriak euskaraz natural egitera bultzatzen gaituenean, ikasten dabilenari euskaraz egiteko dituen mugak zabaltzen zaizkio. Egunero euskaltegira joan gabe egiten duten aurrerapenaz kontziente dira. Gauza dira lanean hizkuntza garatzeko.

Piezak egiteko fabrian hizkuntza ikasteko aukera dute langileek.

Ez nuke mugatuko Elayra, Euskal

Herri osoan daukagu aukera hori, eta askotan ez gara konturatzen duen balioaz. Gizartea kohesionatzeko oso erreminta interesgarria da, hizkuntza ikasteak pertsona batengana hurbiltzea dakar eta horrek proiektu amankomunaren zentzua ematen du.

Ez da seinale txarra zuk horrelako ikuspegia ematea.

Hori ikasi dugu, proiektu kolektiboaren indarra. Honek ez luke irtengo inork aginduta edo bi-hiru bultzatzaile edukita. Denok sinetsi dugu, denon meritua da gaur egun lana euskaraz egitea. ■



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

**gure!
artean!
euskaraz**



**BFA
DFB**

Euskal Herria Europako trenaren atzealdeko bagoietan

Ikerketa eta Garapenean Euskal Herrian egindako inbertsioa gutxitu egin da azken urteetan. Gaindegia behategiak bere blogean argitaraturiko artikulu batek dio, arlo horretan Europako abangoardia diren Alemaniako *länder*-etatik gero eta urrunago gaudela.

| URKO APAOLAZA AVILA |


BARNE PRODUKTU GORDINAREN %1,95 inbertitzen da Euskal Herrian ikerketa eta garapenean. Kalkulu hori egin du Gaindegia, Eustat-eko 2011ko datuak erabiliz –Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako datuak euren estimazioen arabera atera dituzte–. Hala, 2009 urtearekin konparatuta, %1,72 jaitsi da I+G-n egindako gastua.

Zehazki, Gipuzkoan BPGaren %2,57 inbertitzen da, Nafarroan %1,91, Bizkaian %1,87, Araban %1,61 eta Ipar Euskal Herrian –bertako herrialdeetako datuak ezin izan ditu desglosatu– %1,03. Gaindegia arabera, gastuaren beherakada Nafarroan 2010ean eta Araba eta Bizkaian 2011n izandako murrizketek eragin dute. Gipuzkoan eta Iparraldean, aldiz, ez da murrizketarik izan.

Euskal Herriko inbertsio tasa Europako batz bestekotik behera dago (%2,03) eta hainbat eskualdetan inbertitzen denetik oso urrun. Alemaniako Banden-Württemberg *länder*-ean, adibidez, BPGaren %4,37 inbertitzen dute eta Steiermark-en %3,74. Finlandian, Danimarkan, Belgikan, Frantzia edota Holandan, gurean baino diru gehiago erabiltzen dute –baita chunekotan ere– ikerketa eta garapenerako.

Lanpostuetan ez hain gaizki

Ikerketa eta garapena neurtzeko beste modu bat lanpostuak dira. Euskal Herrian lana duen biztanleriaren %1,76 ari da I+G arloan. Tasa hori Europako batz bestekotik gertu dago, baita Alemania,



Holanda eta Frantzia gisako herrialdeen aurretik ere.

Bestalde, bertako inbertsioaren %73,6 eremu enpresarial pribatuan egiten da, %19,7 goi hezkuntzari loturik dago eta %6,5 baino ez da egiten administrazio publikoan. Portzentaje horiek, gehiago hurbiltzen gaituzte Banden-Württemberg-en eredura –inbertsioa ekimen pribatuak egiten du hein handienean–, Brandenburgoko eredura baino –kasu honetan erakunde publikoek daramate ikerketa eta garapenearen zama handiena–.

Gaindegia estez, oinarritzkoa da I+G-n inbertitzea, ez bakarrik “etorkizunera begiratuko duen amaraun ekonomikoa garatzeko”, baita zerbitzu sozialen garapenerako ere. Horrelako inbertsioak gutxitzeak, “gure gaitasunak biziberritzeko baliabide eskasagoak

edukitzea dakar”, behategiko arduradunen ustez. “Hau ezin da eztabaida administratibo edo parlamentariara mugatu, jendartearen inplikazio osoa behar da”. ■



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Iaz, Hego Euskal Herriko argitalpenen ia laurdena euskaraz izan zen

ESPAINIAKO ESTATISTIKA INSTITUTUAK eskainitako datuen arabera, 2012an Hego Euskal Herrian 3.434 lan argitaratu ziren, horietatik 738 euskaraz, alegia %21,4.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2.247 argitalpen izan ziren eta horietatik 667 euskaraz, guztiaren %29,7. Nafarroan berriz, 1.187 lan argitaratu ziren; euskaraz 71, hau da, guztiaren %6.

Katalanari erreparatzen badiogu datuak ondokoak dira: Balear Uharteetan 565 lan argitaratu ziren eta horien %43,9 katalanez; Katalunian 18.767 argitalpen izan ziren, horien %28,3 katalanez; Valentzian 3.677 lan argitaratu ziren, horien %18,7 katalanez.

Galizian berriz, 2.660 lan argitaratu ziren eta horien %45 galizierazkoak ziren.

Lanbide Heziketako 700 ikasmaterial jakinbai.eu-n

JAKINBAI.EU Lanbide Heziketako webgunea berri eta osatu du Lanekik, LH sustatzeko elkarteak. 2001ean abiatu zen atariak euskarara itzulitako 697 ikasmaterial dauzka zintzilikatuta. Itzulitakoak dira, argitaletxeek, errentagarritasun ezagatik, ez dituztelako sortzen. Webgunearen berritasunik handiena *Komunitatea* atala da. LHko irakasleek, eurek sortutako materiala zintzilikatzeko aukera izango dute.

Bahea

Inés López Díezek *Noticias de Gipuzkoan* Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariari esanak:

"40 urteko emakumea naiz, unibertsitate titulua daukat, familia ugariaren ama naiz, eta urtebete baino gehiago daramat langabezian. Ez daukat euskararik. Nire denbora eta ahalegina euskalduntzen ematea erabaki dut. Eguneke bost ordu eta erdiko ikastaroan eman dut izena, astelehenetik ostiralera, Donostiako euskaltegi batean. Han bizi naiz eta zergak han ordaintzen ditut. Ikastaroak 889 euro balio du. Txikiena haurtzaindegian sartu dut eta bi zaharrek jangelan. Kontua da, Donostiako Udalak gehienez 320 euro emango dizkidala. Zuk gidatzen duzun Eusko Jaurlaritzak berriz, ez dit ezer emango. Urkullu jauna, kontuak ez zaizkit ateratzen, eta ez da ironia. Hizkuntza eskubidea da... batzuentzat".

EKONOMIAREN TALAIAN

Langabezia, AHT eta Urkullu

URKULLU LEHENDAKARIAK EAEn enplegua sustatzeko plana aurkeztu du eta konpromisoa hartu du 44.000 lanpostu sortzeko 2016ra artean, horietatik 12.711 aurten. Egungo langabezia tasa, biztanleria aktiboaren %15,93koa da, eta 2013an krisiak 19.000 utziko ditu lanik gabe. Urkulluk onartu du plan hau ez dela "sendagarria", enplegu eza "arintzeko" baino ez duela balioko. Plana aurrera ateratzeko 281 milioi euro bideratuko dituzte 2013an diru-kutxa publikoetatik eta beste 733 milioi euro eremu pribatutik. Hori guztia, dena den, EAEko aurrekontuen onarpenaren baitan dago. Aurrekontuok, hain zuzen, otzantasun handia erakutsi dute Madrilekiko eta Bruselarekiko.

Lehenik, langabeziaren aurkako plan estrategikoa izanik, harrigarria da eragile sozial, patronal, sindikatu, diputazio eta alderdi politikoeekin landu gabe iragarri izana. Are harrigarriagoa da aurrekontuen onarpenaren menpeko plana izatea. Arrazoia dute uste dutenek plan honek marketin operazioa dirudie-la, Gasteizko exekutiboak benetako egitasmo zehatzik ez duelako. Aurrera ateratzen ez bada, EAJk jada eskopeta prestaturik dauka ustezko arduradunei tiro egiteko: oposizioan dauden politikari eta sindikatuak.

Bigarrenik, bai EAJk baita bere Gobernuak ere, badakite langabezia EAEn estrukturala dela eta tapaki aringarriek ez dutela ezertarako balioko. Plan estrategikoa behar da, baliabide ekonomiko handiagoak eta bestelako neurriak eskainiko dituen plana, lanaren banaketa kasu. EAJk AHT gisako obra faranikoak babesten ditu, 4.200 milioi euro kostako direnak; eta jeltzaleak prest dira finantzaketa aurreratzeko. Garbi dago Urkullurentzat eta bere alderdiarentzat AHTk lehentasuna duela langabeziaren aurrean. Langabeziaren aurka, marketin operazioak!

Juan Mari Arregi



Irakurleen iragarkiak



943
341203
(gauez)

euskara

mintzakide bila

Entzumena erabat galdu baino lehen, ahozko euskararen trebatu nahi nuke astean behin hizketakide bakar batekin, Donostian edo inguruan.

Eduardo

Mamografiak ona dute asmoa, baina emaitza nolakoa?

Idatzi du Bernard Duperray mediku eta erradiologoak: “Bada hogeitaz goiti bularreko minbiziarentzako mamografia bidezko diagnostiko indibidual eta masiboa dagoela antolatuta, loturik demagogia baizik ez den propagandari, zeinak laudoriatzen baititu etekin onuragarriak eta ezkututzen eragin kaltegarriak”.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ZILEGI OTE DA AUZITAN JARTZEA kantzerra prebenitzeko antolatuta dauden kanpainak? Ez ote da azpilana egitea osasungintza publikoan murrizketak egiten ari diren indar erreakzionarioei? Ez du emango katastrofismo merkeetan dabilenaren itxura? Eztabaidaren garrantziagatik bederen onartuko al zaigu gaian eskua sartzea.

Kontua da Europa osoan, eta berdin Ipar Amerikan, kantzerraren inguruan multinazionalak antolatuta daukaten negozioaren salaketa orokorra gaindituta, mediku eta gaixo talde serio batzuk –minoritarioak, hori bai– ari direla auzitan jartzen minbiziaren prebentzioan urteotan erabiltzen diren teknikak.

Berrikitan Arte telebistan ikusi ahal izan zen *Touche pas à ma prostate* (Ez ukitu nire prostata) dokumentala, zeinetan klase askotako medikuek eta prostata operatutako giza-semeek hitz egiten zuten kantzerraren mota horren inguruan antolatuta dagoen industriaz, eta zehazki diagnostiko goiztiarrak eta ondorengo alferrikako terapiak beren ustez dakartzaten kalteez.

Arte-n prostataz entzun zirenak ederki josi litezke ondoko lerrootan aipatuko den beste kantzerraren motarekin eta horrentzako prebentzio neurriekin, alegia gure ama, emazte eta arrebei egiten zaizkien mamografia bidezko testen inguruko ezta-

baidarekin.

Medikuntza alopatico ortodoxoaren barnetik osasungintzaren metodoak begirada kritiko batez aztertzen dituen *Pharmacritique* gunean gaia laburbildu du Bernard Duperray doktoreak artikulua bikain honetan: “*Trente ans de dépistage du cancer de sein: bonne intention et obstination dans l’erreur pour un résultat monstrueux*”. Euskaraz emango luke: “Hogeita hamar urte bularreko minbiziaren galbaketzen: asmo ona eta errorean egoskortzea, azkenik emaitza beldurgarria iristeko”.

Galbahetzea itzuli dugu *dépistage* frantsesezkoa, espainolez *cribado* esaten dutena eta ingelesez *screening*, katalanez *cribatge*. Hots, adin tarte jakin bateko emakume guztiak harturik denei froga jakin bat egin, mamografia bana, hasieran egon daitezkeen kantzerr txikiak aurkituz gaitzaren garapena prebenitzeko.

Bernard Duperray mediku eta erradiologoak da, senologian ari da 1971tik. 1993an Paris ondoko Oise departamenduan antolatu zenean minbiziaren baheketa egiteko elkarrekin, bere batzorde zientifikoko presidentea izan zen. Aitortzen du gaiaz zalantzak zeuzkala 1980ko hamarkadatik, baina 1995ean berretsizuela bere begiekin prebentzio sistema honen porrota.

Online Healthcare Services erakundearen irudian medikua emakumeari azaltzen bere mamografiaren zertzeladak. *Pharmacritique* gunean Bernard Duperrayk azaldutako kritiken antzekoak zabaldua daude Mendebalde osoan eta gaixotasun askoren prebentzio eta tratamenduez. Hain zuzen “*Surmedicalisation, surdiagnostics, surtraitements*” gaiak landuko dituzte maiatzaren 3 eta 4an Parisen Bobignyko Medikuntza fakultatean burutuko diren jardunaldiak. *Surmedicalisation* guneak honela laburbiltzen du afera: “Gaixoen eta, gero eta gehiago, sano dauden mesederako omen direlako argudioz ezarri dira diagnostikatzeko metodo, tratamendu eta kirurgiak, erantzuten dietenak gaixoen eskariei baina baita galbaheketa programei, hauek lortzen dituzten onurak funtsez demostratu gabe eta sarritan beren arriskuak ondo ebaluatu gabe eta horien informazio guztiak eskaini barik”.

Urte hartan bertan, 1995ean, dimitituz aurkeztu zuen idatzian garbi esan zuen Duperrayk: “Emakumeek ez daukate gaur egun bate-re bermerik sistemaren eraginkortasunaz, ez eta ere, okerragoa dena, eragin kaltegarriak mesedeak baino handiagoak ez izatearen bermerik”. Geroztik uko egin dio mamografia orokortuen bidez emakumeen galbahetzeari.

Sobera diagnostikatuak

“Bularreko minbiziaren –hasten du *Pharmacritique*ko artikulua Duperrayk– da gaur egun emakumeen kantzerrak hilgarriena. Ez da ikusten jaitziera nabarmenik bularreko minbiziagatik hilkortasunean. Jaitziera ikusten den lekuetan, berdin aurkitzen da bahetik pasa direnen eta ez diren emakumeen artean”.

Frantzia lau aldiz mamografia gehiago egiten diren arren Ingalaterran baino, Europako hilkortasun tasa txarrenetakoa dauka. Masektomiak –bularra kentzeak– ugaritzen ari dira, neurri handiagoko galbahetik pasatakoen artean.

Frantzia, dio Duperrayk, prebentzio sistema 1987an senologia elkargoak erabakitako printzipioen gainean antolatuta zen. Bularreko minbiziaren teoria finkatu zen: zelula kantzerrigeno batetik metastasiraino doazen urrats eta epeak.



Mamografia orokortuen planifikazioa antolatu baita aipatu bi ikerlan amerikar eta suediarren ildoan, geroztik egin diren lanek gezurtatu dituzte haien emaitzak. Frantzian 1997an Paul Schaffer epidemiodologoak plazaratu omen zuen: “Tumoreen galbahetze kanpaina: zuhur jokatu behar dugu”. Geroztik ikerlan gehiago plazaratu da, tartean 2000an Cochran Groupek egin zuena, ondorio beretara helduz.

Gakoa ei datza *surdiagnostic* horretan. Froga batean, izan bularrekoa edo prostatakkoa, norbaiti “gaixotasuna” aurkitu diotenean, behar bada aurkitu ez baliote bizi osoan arazorik ekarriko ez liokeena, diagnostiko hori medikuntzaren ikuspegitik zuzena da baina pertsonari ez dio balio. Nola jakin egokia den ala gehiegizkoa diagnostiko bat pertsonaren ikuspegitik? Epidemiologiak dauka erantzuna, ikusi denez.

Eta epidemiologiak, gizarte bateko pertsonen nozitzen dituzten gaixotasunak aztertzen dituenen, zer dio? Mamografiaren ugaritzeak ez dituela gutxitu heriotzak, ezta bularreko kantzer aurreratuak ere. Sintomarik ez duten emakumeen artean bularreko minbizia espero zen baino ugariagoa dela. Froga klinikoetan aurkitutako minbizi histologikoa ez dela derrigor gaixotasuntzat hartzekoa. Kantzer batzuek berez egiten dutela atzera. Minbi ziaren jatorri eta garapenaz dagoen historia natural osoa berraztertu behar dela.

Beren bularren jabe diren emakumeek badute honetan eztabai-dagai galanta. ■



Honen arabera, zenbat eta beranduago diagnostikatu, orduan eta aukera gutxiago dauzka gaixoak hobera egiteko. Ordura arte klasikoak ziren bi azterlanetan oinarritzen ziren, 1963an New Yorken egindako batean eta 1985ean Suedian egindako beste batean. Bien arabera, mamografia bidez garaz hautemateagatik kantzerren hilkortasuna %30ean gutxitua omen zen.

“Tamalez —dio Duperrayk— erai-kuntza teoriko eder hori guztia erabat gezurrezkoa dela ikusi da”. Batetik, esperientzia klinikoak gezurtatzen duelako: minbizi txikia ez da beti goiztiarra, txiki segitu dezake luzaz; txikiak ez du esan nahi pronostiko ona daukanik; gai-

tzaren garapena ez da ez saihestezina, ez denboran zehar lineala.

Gehiengoaren teoriari Duperrayk aurkitzen dion bigarren objektzioa teknikoa da: azterketa kliniko bat gabe sinesgarritasuna galtzen dute mamografiak. Mamografiaren kalitatea hobetzeko egin dira ahaleginak baina “lesio gehiago aurkitzeko gai garen arren, ez dakigu haien garapenaz gehiago. Ondorioz, zenbat eta efikazagoak [tumoreak] aurkitzen, orduan *surdiagnostic* [gehiiegizko diagnostiko] gehiago sortu dugu. (...) Baldintza hauetan, zenbat eta gehiago hobetu, orduan eta perbersoagoa bilakatzen da galbaheketa bere ondorioetan”.

Hirugarren objektzioa epidemiologian aurkitzen du Duperrayk.





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Independentzia materiala eta formala

INDEPENDENTZIA da, teoriar, alderdi abertzaleen helburua Euskal Herriaren etorkizuneko estatusari begira, eta aurtengo Aberri Egunean alderdi abertzaleek berriz ere aldarrikatuko dute ideia hori, bestetik ez bada aho txikiarekin. Independentzia, burujabetza, autodeterminazioa, erabaki eskubidea... herritarrei egindako kontsulta bidez, Euskal Herria zein estatuetan setan gura den erabaki ahal izatea.

Idea klasikoari muzin egin gabe eta hori aldarrikapenaren buruan jarrita ere, asko dira gero eta gehiago independentziaren indarra egunerokotasunean jartzen dutenak: udaletxeko erabakietan, legebiltzarretan, diputazioetan, herritarren elkarteetan, hezkuntza curriculumean, hedabideetan... Debekatutako gainsaria ordainduz, hizkuntzaren garapenean neurriak hartuz, gastu sozialean inbertituz, azpiegiturak eginez, ETB euskal lurralde guztietara eramanez, euskal lurraldeetako herritarrak harremanduz... Gure herri erakundeek edo gizarteko subjektu aktiboek egin dezaketen ia guztiak balio dezake independentzia erakitzeko, egiazki hori baldin bada bukaerako helburua.

Egunerokotasunean herria egiteko edo independentzia gauzatzeke egiten den horri guztiari independentzia materiala deitzen diote adituek. Eta independentzia formala estatua bera lortzeari. Independentzia materialaren ikuspegia herri batek eta lurralde batek bizi duten errealtate zehatzetik abiatzen da, egunerokotasunetik, eta erantzun zehatzak ditu, esaterako, independentziaren aldarrikape-



nean lurraldetasuna medio sortzen diren hainbat ikusmolderekiko. Adibidez: EAEk lor dezake independentzia material maila handiagoa eta independentzia formala gauzatu; eta Nafarroak, bertako herritarrek hala nahi balute, geroago egin lezake bide hori. EAE lehenago aipatzeak norbait mindu badu, jar beza Nafarroa lehenago eta ondoren EAE. Berdin Ipar Euskal Herriko lurraldeekin.

Barcina bera ahultzea baino, hortaz, PSN ehizatzea izan liteke zentsura mozioaren arrazoi nagusietakoa, edo biak

Independentziaren aldeko bidean, halaber, hainbat arrazoi edo motore izan daitezke. Adibidez: “aberatsen independentzia”, “justuen independentzia” edo “desberdinen independentzia”, nahiz eta normalean herriek hiru-ren nahasketarekin eskuratzen duten independentzia.

Kontzeptu hauek guztiak jorratzen dira EHUKo irakasle Mario Zubiagarekin, zenbaki honekin batera doan LARRUNen egindako elkarrizketan. Badira hainbat

arrazoi esateko gurean ere independentziaren ideia gero eta indar handiagoa hartzen ari dela. Eta beste hainbat arrazoi esateko ideia horiek nebulosa baten gisan daudela oraindik ere, nahi eta ezinaren lurralde galduetan atzera-aurrera. Aberri Egunaren atariko egun hauetan, aipatu elkarrizketak gogoeta interesgarriak eskainiko dizkio independentziaz gogoeta egin eta ideiak azkartu gura dituen edonori.

ZENTSURA MOZIOA aurkeztuko da apirilaren 5ean Yolanda Barcinaren aurka. Gogo maila berdinarekin ez, baina EH Bilduko indarrak, Geroa Bai eta Ezkerraren botoak mozioaren aldekoak izango dira seguruenik, UPN eta PPrenak kontrakoak eta PSN abstentitu egingo da. Hori izan daiteke emaitza.


Eta horrek nori egiten dio mesede? Batzuen ustez, aurrera egingo ez duenez, zentsura mozioak Yolanda Barcina bera indartu dezake. Beste batzuek, ordea, Barcina berdintsu utziko duela diote eta higadurarako balio duela. Eta gehienek aburuz, PSN erantzutera behartuko du eta, beraz, posizioa hartzera. Barcina bera ahultzea baino, hortaz, PSN ehizatzea izan liteke zentsura mozioaren arrazoi nagusietakoa. Edo biak.

Hala da bai, PSN posizio larrian dago, batetik UPN sostengu eske eta, bestetik, alternatziarako giltzarri. Edozelan ere, beste urrats bat emango da hauteskunde bidean ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1



Inguru Abentura

Puenting (II. maila)
4 harpideentzako bina saio

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

2



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

3



Erritmoa, kazetariaren batuta

Jexux Eizaguirre Portillo

5 liburu opari

Hernani GIPUZKOA

www.kronika.net
www.dobera.com

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2361. Argia)

BESARO LANDA HOTELA

- Manoli Zaldúa Muruaga (Hernani)

INGURU ABENTURA Safari itsuka

- Gorka Bueno Mendieta (Bilbo)
- Andres Alberdi Gorostiaga (Elgoibar)
- Ixabel Jauregi Alberdi(Azkoitia)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)
- Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruñea)
- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)

ESKU HORI liburua

- Xabier Castrillon Revuelta (Hondarribia)
- Miren Arrizabalaga Arrizabalaga (Berritxu)
- Xalbador Unzueta Mitxelena (Zarautz)
- Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)
- Aintzane Linaza Etxeberria (Gasteiz)

OKATXU komikia

- Antonio Amundarain Aizpurua (Andoain)
- Luis Angel Agirre Muxika (Tolosa)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea



euskalerriairratia **fm91.4**



Nafarroako Gobernuaren
debekuaren aurrean
emaguzue zuen baimena

Bazkidetu!

euskalerriairratia.com

00 34 948 17 01 51